

**Herririk Herri** | 7 |

Durangaldeko 56. Txistulari Eguna ospatuko dute domekan Zelaietan



**Berbaz** | 8 |

David Cobos: "Udalak jendea informatu behar du, erabakietan parte hartu dezan"

**Kultura** | 11 |

Eguenean Plateruenean 'Kantulagun' izango da Mikel Markez musikaria

## Eskualdeko bost herriri eragingo lieke argindar linea berriak

- > Gueñes eta Ezkio-Itsaso lotzeko argindar linea Garai, Iurreta, Berriz, Zaldibar eta Mallabitik joango litzateke
- > Iurretak udalbatzarrean eta Berrizek batzordean, aho batez onartu dute proiektuaren kontra daudela

2



Kepa Aginako

**Motor hotsa etxean bertan, zapatuan Durangon korrituko den lehen slalomean**

**Durango**• Durangalde Racing Elkarteak Durangoko I. Slaloma antolatu du biharko. Ikuskizunaz gozatzeko ez dago Urkiolara edo Montecalvora joan beharrik. Durango herrigunetik gertu antolatu dute zirkuitua; BI-623 errepidean, Tabirako eta San Rokerako biribilguneen artean. 15:30ean hasiko da 40 bat parte-hartzaile izango dituen lasterketa. **15**

## San Pedro Legañoako aztarnarik zaharrenak XI. mendekoak dira

**Berriz**• San Pedro Legaño ingurua aztertu duten adituen arabera XI., XVI. eta XIX. mendeko aztarnak aurkitu dituzte. XIX. mendekoek berezitasun bat dute; garai horri dagozkion hilobien zurezko kutxa eta barruko hezurak elizatik zein kanposantutik kanpora aurkitzen dituzten lehen aldia da Bizkaian. Baliteke sasoiko bizilagunek izurrite baten gatik hartu izana erabaki hori. **4**



Moda 2011

**•Durango**

Arazakeriaren Kontrako Astean hainbat ekimen izango dira **3**

**•Otxandio**

Biometanizazioari etekina zelan atera aztertzen dihardute **6**

**•Atxondo**

Udalak eskola berriko lanak ez gelditzea erabaki du **7**

**•Durangaldea**

ELA, LAB eta EHNE sindikatuek espere politika salatu dute **2**

PREST

**m**

**MONDRAGON UNIBERTSITATEA**

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



## ATE IREKIAK

**Goi Eskola Politeknikoa**

**ARRASATE**

**MARTXOAK 17**  
osteguna, 17:30

**ORDIZIA**

**MARTXOAK 26**  
larunbata, 11:00

ARETO NAGUSIAN  
Etorri aurretik izena eman!

# HERRIRIK HERRI >

**DURANGALDEA**

## Argindar lineak tentsioa eragin du zeharkatuko lituzkeen bost herrietan

Iurretak udalbatzarrean eta Berrizek batzordean, linea berriari ezetz esan diote



Martitzenean Mallabian egindako herri-batzarrean alkateak proiektua azaldu zien herritarrei.

**B**izkaian Gueñesko azpiestazioa eta Gipuzkoan Ezkio-Itsasokoa batuko lituzkeen goi-tentsioko argindar linea egiteko baimena eskatu du Red Eléctrica de España enpresak. 72 kilometroko lineak Durangaldeko bost herrietako lurra zeharkatuko lituzke: Iurreta, Garai, Berriz, Mallabia

**Aurreproiektua eta Ingurugiro Inpaktu Azterketa eginda daude, eta datorren astean amaituko da alegazio epea**

eta Zaldibarkoak. Aurreproiektua eta Ingurugiro Inpaktuaren Azterketa bidali dute udaletxe guztietara, eta hauei datorren astean amaituko zaie alegazioak aurkezteko epea. Iurretako udalak udalbatzarrean eta Berrizkoak batzordean linearen kontrako jarrerara hartu dute aho batez.

Iurretan San Markos eta Artaza auzoak baino goragotik pasatuko litzateke, eta lineatik gertuen dagoen baserria 150 metrora dago. Hainbat alegazio aurkeztu dituzte dagoeneko: "Balore erantsirik ez duten azpiegituren sufrikarioa gara", dio Iñaki Totorikaguena alkateak: "Zergatik ez dute Iurreta kontuan hartzen ospitale bat edo zentro teknologiko bat egiteko?"

Iurretatik Garaira joango da linea, Oiz ingurutik. Asteon arkitektoagaz batu dira eta, segururik, alegazioak aurkeztuko dituzte. Gaia udalbatzarrera laster eroateko asmoa ere erakutsi dute.

**Goi tentsioko lineak 72 kilometro lituzke, horietako ia 15 eskualdeko lurretan**

BI-3342 errepidea zeharkatuz sartuko da goi-tentsioko linea Berrizen eta lau auzori eragingo die. Batzordean hainbat alegazio prestatu dituzte. Horietako batean azpimarratu dutenez, "kontsumo arrazionalaren bidetik neurriak hartzen gabiltzanean, zentzubakoa da espektatibak kontsumo gehiagorakoak izatea". Kaltetutako lurjabeek babesa eskaintzea ere onartu dute.

Mallabian kalkuluak egin dituzte, eta lineatik 300 metro baino distantzia txikiagoan 40 bat lagun bizi dira. Esaterako, Areitio auzoko Ariño ingurua (hiru base-erri osatua) bi linearen artean geratuko litzateke, lehendik ere badutelako bat inguruan. Martitzenean egindako herri batzarrean herritarrek kezka erakutsi zuten.

Linea Zaldibarrera doa ondoren. Lurjabeekin batzen hasteko asmoa dute, eta proiektua kontuz aztertuko dutela diote. ■ J.D.

**DATU OROKORRAK**

**Proiektua:** 'Gas eta Elektrizitate Sektoreko Planifikazioa (2008-2016)' egitasmoan jasota dago.  
**Trazatua:** Ezkio-Itsaso eta Gueñesko azpiestazioak lotuko ditu.  
**Luzera:** 72 kilometro.  
**Luzera Durangaldean:** 15 kilometro.  
**Garraiatutako indarra:** 400 kV.

**HERRIZ HERRI**

**IURRETA:**  
**Luzera:** 3 kilometro  
**Nondik:** San Marko eta Artaza auzoen goialdetik  
**Egoera:** Udalbatzarrera, aho batez, linearen kontra agertu da.

**GARAI:**  
**Luzera:** 2,5 kilometro.  
**Nondik:** Oiz menditik zeharkatu du Garai.  
**Egoera:** Gaia udalbatzarrera eroango dute laster.

**BERRIZ:**  
**Luzera:** 4 kilometro.  
**Nondik:** Sarria, Andikoa, San Lorenzo eta Lasuen auzoetatik igaroko da.  
**Egoera:** Batzordeak, aho batez, linearen kontrako jarrerara hartu du.

**MALLABIA:**  
**Luzera:** 1a kilometro bat.  
**Nondik:** Areitio auzotik. Zengotita eta Aituatik ere gertu joango da.  
**Egoera:** Udalbatzarrera eroango dute laster.

**ZALDIBAR:**  
**Luzera:** 3,5 kilometro  
**Nondik:** Herri gainetik eta mendebaldetik joango da.  
**Egoera:** Gaia aztertzen eta kaltetuekin berba egiten hasteko asmoa dute.

## Sindikatuak espetxe politika salatu dute, Etxerategaz batera

ELA, EHNE eta LAB beharginen atxikimenduak batzen dabilta egunotan

Presoen eskubideen alde hile honetako azken barikuan kontzentratzeko Etxeraten deialdira batu dira Durangaldeko ELA, LAB eta EHNE. Asteon manifestu bat irakurri dute elkartzuna adierazteko, eta egunotan eskualdeko beharginen sindurak batzen dabilta.

Sindikatuetakordezkariek lau eskari nagusi egin dituzte: "Sakabanaketa amaitzea, gaixotasun larriak dituzten presoak kalera aterzea, bizi guztiko kartzela zigorra bertan behera geratzea eta espetxean ematen diren hainbat eskubide urraketa amaitzea". Euren esanetan, "edozein demokraziaren oinarri-oinarritzko betebeharrak baino ez" dituzte eskatzen.

**Eragileak gonbidatu dituzte** Etxerat eskualdeko eragileak gonbidatzen dabil hileko azken barikuetako elkarretaratzeetan parte hartzeko. Urtarrilean irakaskuntzako eragileek egin zuten bat deialdiagaz, eta otsailean, berriz, osasun arlokoek. Martxoan beharginen ordezkariak egin dute, eta beraz, hilaren 25eko elkarretaratzeetara joateko deia egin diete

**Presoen eskubideen alde, "edozein demokraziaren betebeharrak baino ez" dituztela eskatzen azaldu dute**

ELAK, EHNEk eta LABek langileei. Datozen hileetan beste eragile batzuen txanda izango da. ■ A.U.

**Elkarretaratzeen orduak eta lekuak:**

- Abadiño:** 19:30ean, Txanporta plazan
- Atxondo:** 19:30ean, Udaletxean
- Iurreta:** 19:30ean, Montoien
- Elorrio:** 19:30ean, Herriko plazan
- Zaldibar:** 20:00etan, autobus geltokian
- Durango:** 20:00etan, Ezkurdin



Sindikatuetakorde eta Etxerategaz batera martitzeneko agerraldian.



**DURANGO**

# Igogailua ipinita amaitu dituzte museoko beharrak

Mugikortasun arazoak dituzten herritarrentzako erraztasunak ipini dituzte



Hainbat aukera aztertu eta gero, kanpoaldean ipini dute igogailua.

## Arrazakeriaren kontra, berbaldiak eta kultur ekitaldiak asteon

Arrazakeriaren Kontrako Astea dela-eta ekintza ugari antolatu dituzte datorren asterako

Astelehenean SOS Arrazakeria elkartearen erakusketa batez hasiko da Durangon Arrazakeriaren Kontrako Astea. San Agustín kulturgunean ipiniko dute emakume etorkinen gaineko erakusketa, domekara bitartean.

Plateruenean 'Koloretan Bizi' arrazakeriaren kontrako zine zikloa proiektatuko dute martitzen. Lau film labur izango dira ikusgai, 19:30ean hasita.

Eguazten goizerako, irakaskuntzan arrazakeriak izan ditzaiken ondorioen gaineko hitzaldia antolatu dute. Hitzkuntza Eskolan goizeko 10:00etan hasiko da berbaldia, eta LH eta DBHko irakas-

leei zuzenduta egongo da. Eguazten arratsaldean, berriz, arrazakeriaren eraikuntzaren gaineko hitzaldia emango dute San Agustinen, 19:30ean.

### Kultur arteko ezagutza

Ipuinen eta antzerkiaren bidez kulturen arteko ezagutza bultzatuko dute zapatuan. 12:00etan, Alaitz Muro eta Agurtzane Villatek Afrikako ipuinak kontatuko dituzte liburutegian, 4 urtetik gorako umeentzat. Iluntzean, 19:30ean, Karrika antzerki taldeak antzerkitxoko bat atonduko du San Agustinen, "kulturen elkartrukean parte hartzeko". ■ A.U.

## '1.000 Aukera' garraio azoka egingo dute apirilaren 3an

Bigarren eskuko autoak eta motoak, karabanak, ibilgailu berriak, klasikoak, lasterketeta-koak... denetik saldu eta erosi ahaliko da apirilaren 3an 1.000 Aukera izeneko azokan. Durangon, Hiper Simply supermerkatuko aparkalekuan ipiniko dute azoka, eta ibilgailua saldu gura dutenek hilaren 24a baino arinago eman beharko dute izena.

1000aukera.wordpress.com izeneko bloga dauka ekimenak. Interesatuentzat, antolatzaileen helbide elektronikoa 1000aukera@gmail.com da, eta telefonoa 676923611. Mondragon Unibertsitateko ikasle talde bat dabil azoka antolatzen. LEINN izeneko karrera ikasten dabilta, eta ikasketekin lotutako proiektua da 1000 Aukera. ■ A.U.

Arte eta Historia Museoko irisgarritasun lanak hiru zatitan garatu dituzte: eraikinaren atze aldeko egitura sendotu dute, igogailua eraiki dute eta sarbidean ere aldaketak egin dituzte, "erabilerrazago" bihurtzeko.

Durangoko alkate Aitziber Irigorasek jakin eragin duenez, 287.900 euro inguru inbertitu dituzte museoko beharretan.

### Eraikinaren atzealdean egitura sendotu egin dute eta igogailua kanpotik eraiki dute, atzealdean bertan

### San Roken, biribilguneko lanak direla-eta, Astxikitik saihebidetako zatia itxi dute

Alkateak azaldu duenez, egitura tinkotzeko beharrezana zeukan museoak: "Artxiboaren gehiegizko pisuak eta lurpetik igarotzen diren urek arrakala eta patologia asko eragin dituzte".

Igogailua kanpoaldean ipini dute, hainbat kokaleku aztertu eta gero. Museoko atzeko partean

dago, eraikinaren eta eranskinaren arteko lotunean. Museoko edozein solairutara igogailua erabiliz sartzeko jauregiko eskailera-burutik ipini dute sarbidea.

San Agustinalde kaletik Etxezarreta jauregirainoko sarbidea ere erabilerrazago jarri dute. "San Agustinalden urteetan zehar egindako obren ondorioz, Etxezarreta jauregia kalea bera baino 50 zentimetro beherago dago", udal arduradunek jakitera eman dute. "Kalea iparralderantz jausten dela aprobetxatuta, Museoko sarrera alboko atetik egitea planteatu" ei dute. Pasabidea handitu, horma bat bota eta gas-hartu-nea lekuz aldatu dituzte.

### San Rokeko biribilgunea

Otsailean hasi zituzten San Rokeko biribilguneko obrak, eta zortzi hileko epea dute amaitzeko. Martxoaren 9an Astxiki kaletik saihebidetako zatia itxi egin dute. Berritze-lanak egingo dituzte tarte horretan, goranzko norantzan. Eskuma aldean bidegorria eta espaloia sartzeko plataforma eginda utziko dute, eta horretarako hainbat hiletan zarratuta egon beharko du errepide zati horrek. 1.652.701 euroko aurrekontua dute lanek. ■ A.B./A.U.

**ZALDIBAR**

## Bidaietako esperientziak elkarbanatzeko aukera

Liburutegian ziklo berri bati ekin gura diote bidaien inguruko kontakizunetan oinarrituta

Zaldibarko liburutegian ekimen berria ipiniko dute martxan laster, herritarrek egindako bidaietako pasarteak ezagutzeko aukera emango duena.

### Esperientziekin, argazkiekin eta bestelakoekin bloga sortzeko asmoa daukate

Oraindino ez dago zehaztuta noiz hasiko den zikloa, baina arduradunek asteon deialdia egin dute izena emateko: "Beste onberastasun pertsonala garatzeko helburuagaz zuk bizi izandako bidaiak bereziren bat elkarba-

natzeko prest bazaude, etorri edo bidali mezu bat Udal Liburutegira", diote antolatzaileek. Ekime- nean izena emateko bide moduan mezua bidaltzea aukeratuz gero [liburutegia@zaldibar.org](mailto:liburutegia@zaldibar.org) helbide elektronikoa erabiliko beharko da.

### Blog kolektiboa

Zikloaren arduradunek azaldu dutenez, bidaien inguruko berbaldiez gainera, mahai-inguruak ere egiteko asmoa daukate.

Parte-hartzaile guztien esperientziekin, argazkiekin eta beste elementu batzuekin blog bat sortzea itxaroten dute Interneten, material guztia pilatuta eta esku- ragarri izateko. ■ M.O.

# GALLASTEGI

gallastegiharategiak@euskalnet.net

1955 ean sortua



**EUSKO LABEL**

Baimendutako harategia

**Euskal Okela**

Carnicería autorizada

Antso Estegiz, 1

946 812 247

48200 DURANGO

Zalduasolo, 8  
946 827 038  
48250 ZALDIBAR



IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behea  
48200 DURANGO  
Tel./Faxa: 94 621 54 04

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz



**Podologo**  
188. Elkartegia

**BERRIZ**



Joan zen barikuan egin zuten ikerketa-gunerako bisita arkeologoak eta udal ordezkariak.

## Hiru garaitako aztarna baliotsuak aurkitu dituzte

San Pedro Legaño ermita zeneko ingurunera bisita egin zuten joan zen barikuan udal ordezkariak Roman Rodriguez Calleja arkeologoak lagunduta

**R**oman Rodriguez Calleja arkeologoak Legañoan egindako lanak eta ondoriozko emaitzak azaldu zituen barikuan. Historiako hiru garai islatzen dituzten aztarnak topatu dituztela argitu zuen: XI. XVI. eta XIX. mendeetakoak.

Hilobien kokapena, norabidea, egitura eta materialak aztertuta ondorioztatu dute hiru sasoi-tako elementuak daudela bertan. Hilobi batzuk ipar-hego norabidean daude; beste batzuk mendebalde-ekialde zentzuan. Hilobien

estalki liritekeen harrizko xafak aurkitu dituzte, baita zurezko kutzak ere. Azken horiek eta barruko hezurak ermitatik kanpora egon dira, eta, ikerketen arabera, XIX. mendekoak dira. Zaharrenak ez izan arren, oso garrantzitsuak ei dira: eliza zein kanposantutik

**Hiru garai islatzen dituzten aztarnak topatu dituzte: XI. XVI. eta XIX. mendeetakoak**

kanpora aurkitu dituzten era horretako lehenengo aztarnak dira Bizkaian. Antza denez, izurrite batek bultzatuta, hilobiratzeak elizatik kanpora egiten hasi ziren orduko berriztarrak.

Aurreikusi bako garrantzia daukan aurkikuntza egin dute, izaera zein denboragatik. Ordezkariei arabera, herriko historia ezagutzen lagunduko du azterketa berriak. Gainera, "turistikoki ingurua indartu dezake", Argiñeta, Momoitio eta ikertzeke dagoen Andikoako guneagaz lotuta. ■ M.O.

**MALLABIA**

## Pirritx, Porrotx eta Marimototsek 550 haur eta heldu batuko dituzte

Salgai ipinitako lehenengo egunean saldu zituzten sarrerak; ikuskizuna gaur izango da, 18:30ean

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek goraino beteko dute Mallabia I pilotalekua, gaur, 18:30ean hasiko duten ikuskizunean. Honako hau ez da Mallabia bisitatzen duten lehenengo biderra, baina, hala ere, ikusmin handia eragin du hiru pailazoen etorrerak. Salgai ipinitako 550 sarretatik ia guztiak egun horretan bertan saldu zituzten; hurrengo egunerako 20 bakarrik geratu ziren.

Ekimena udalak antolatu du, eta aurtengo apirilean Korrikak Mallabiko lurrazpalduko dituela aprobetxatuz, ikuskizuna Korrika Kulturalaren barruko ekimen legez kokatu dute. Horrela, euskararen alde urte birik behin ospatzen den Korrikari laguntza eta bultzada eman gura izan dio Mallabiko Udalak.

Udal ordezkariak adierazi dutenez, iaz ere ahaleginu ziren Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna kontratatzen, baina egutegi osoa beteta zutelako ezin izan zuten Mallabira etorri. Aurtun urtarrilean hasi ziren kontratazio lanetan, eta orduan zehaztu zuten eguna ere. ■ J.D.

**Aurtun Korrika Mallabitik igaroko denez, Korrika Kulturalaren barruan kokatu dute ekimena**

**IURRETA**

## Baserrien izenei "euren garrantzia" eman gura diete

Egon daitezken akatsak zuzentzeko auzotarrei gutuna bidali die udalak, egitasmoa azalduz

Seinaleztapen berria ipiniko du udalak baserrien izenen "bereko garrantzia" mantendu guran. Iñaki Totorikaguena alkateak azaldu duenez bizitza bakarreko etxeak ere sartu dituzte egitasmoan. Denera, 136 baserri eta bizitza bakarreko etxe seinaleztatu dituzte, 30.000 euroko aurrekontuagaz.

Lanak hartzen dituen enpresari 103 seinale eskatuko dizkio; izen bakarrekoak 75, bikoitzak 23 eta hirukoitzak 5. Gehienak baserriei dagozkie. Apirilean esleitu gura ditu lanak udalak, eta maiatzaren amaieran edo ekain hasieran jarri. "Baserri eta etxeon izena mantentzea gura dugu, geu-

## Emakumeen lana islatzeko beka plazaratu du udalak

Berrizko herriari historian zehar emakumeek egindako ekarpena ikertzea du helburu

Berrizko Udalak herriko emakumeek historian egin duten lana islatzeko asmoa du, eta horretarako, ikerketa-beka plazaratu du. Emakumeen lana eta lan horren eragin soziala, kulturala zein politikoa "ezkutuan" egon direla diote, "emakumeen ekarpenak historian ez direlako jaso izan".

Ikerketa horrek urte eta erdi-ko iraupena izango du esleipe-

na egiten denetik hasita. Urtea pasatzean, onuradunak idatzizko proiektua aurkeztu beharko du, eta amaieran ikus-entzunezko euskarria, ikerketaren emaitzak islatuz. Euskarri horren eraketa libre da: dokumentala, elkarrizketak edo laburmetraia formatuak aukeratu daitezke. Beka norbanakoek zein helburu honetarako sortutako lan-taldeek eskuratu ahal izango dute.

Hilabeteko epea dago izena emateko, eta beka jasotzen duenari 16.000 euroko laguntza eman- go dio udalak. Aurkeztu beharreko dokumentazio guztia euskarazkoa izan beharko da. ■ M.O.

**Ikus-entzunezko eta idatzizko proiektuak aurkeztu beharko dira**

## "Ika-mika antzuetan" ez da sartuko Azpitarte

Finantzazioa lortzeko lanean dabiltzala azaldu du Erraldeko lehendakaria den Jabier Azpitartek

Joan zen astean zenbait hedabidetan agertutako informazioaren harira, "ika-mika antzuetan" ez dela sartuko adierazi digu Jabier Azpitartek. Argitaratutako informazioen arabera, Erraldegaz 2007an hitzarmena sinatutako hiru kutexek "bidejudizialekietea" baloratu zuten aukeren artean, mailegu berrien eskaintzen aurreko "erantzun faltaga-

tik". Hitzarmenean 12 milioi euroko mailegua adostu zuten, eta horretatik 2,2 luzatu dituzte jada.

Azpitartek azaldu digu proiektua eraikitzeke lurra eta lizentzia badituztela, eta orain "finantzazioaren negoziaketetan" murgilduta daudela argitu du. Hori lortuta gero, obrari ekin eta zehaztapenak orduan emango dituztela adierazi du. ■ M.O.

## AHTaren lanen berririk jaso ez izana kritikatu du alkateak

"Instituzio arteko errespetu eta kortesia falta" deritza Iñaki Totorikaguena alkateak AHTaren San Andresko tunela amaituta egindako ekitaldira gonbidatu ez izanari. "Ezelako berririk" ez dutela izan gaineratu du.

Durango-Zornotza zatian zulatuta dute San Andres auzoan tunela. "Obrak eta eragindako kalteak jasan ondoren, zer gutxiago herriko instituzio nagusia gonbidatzea baino", dio alkateak. Aurretik "egin beharreko obra garrantzitsua" dela argitu du. Espainiako sustapen ministro José Blanco eta gobernu delegatu Mikel Cabieces izan ziren, eta Jaurlaritzako garraio kontseilari Iñaki Arriola. Apirilean eman gura ditu Espainiako Sustapen Ministerioak Elorrio-Atxondo zatiko lanak. ■ A.B.

**136 baserri eta bizitza bakarreko etxe seinaleztatu dituzte**

akatsak zuzentzeko martxoaren 18ra orduko: "Txarto dauden ize- nak zuzentzeko; baten bat ahaztu badugu ere zuzentzeko". Horregaz egitasmoa moldatuko dute, behin betiko onartzeko. ■ A.B.

**Ekimen interesgarri batetan zaude?  
Argazki kamera edo mugikorra  
gainean daukazu?**



**izan zaitez zu  
bideogile**



**izan zaitez zu  
argazkilar**

Jaiak, ikastetxe edo kale ekimenak,  
taldeko bidaiak edo interesgarria iruditzen  
zaizun edozein ekimen... bialdu eta  
**www.anboto.org** webgunean  
erakutsiko ditugu



**Bialdu zure bideo edo argazkiak:  
agenda@anboto.org helbidera  
edo ekar itzazu lurretan,  
Bixente Kapanaga 9an dugun egoitzara**



OTXANDIO

# Biometanizazioa eta bere aukerak aztergai energiaren gaineko bileran

Batez ere abeltzaintza hondakinak eta materia organikoa aprobetxatzea aurreikusten dute

**H**urrengo 12-16 urteotan Otxandiok hartuko duen norabidearen ipar izateko bokazioz jaio den egitasmoa da Herri-ola, eta joan zen egueneko Herritarren Kontseiluan eman zuen lehen urratsa: Oreka proiektua ipini zuten martxan. 60 lagunek biometanizazioak –metano gasa ematen duen materiaren hartidura-tratamendua– Otxandion izan ditzakeen aukerak aztertu zituzten. Helburua, inguruneak

eskaintzen dituen energia berriztagarriak aprobetxatuz erregai fosilekiko dependentsia murriztea izango litzateke.

Otxandiotik gertu 1.000 behi inguru dituen granja bat dago, eta ikerketarako ideia hortik otu zitzaion. Abeltzaintzako hondakinok eta materia organikoak aprobetxatzeko biometanizazio plan bat eraikiko lukete.

**Hiru eszenatoki**

Gaiaren gaineko ikerketa garatu duen Egimen elkarteko IbanLizaraldek, Otxandion biometanizazioa nola lortu ahalko zen azaldu zuen; hiru eszenatoki desberdin plazaratu zituen. Materia organi-



Mainondoko gimnasioan egin zuten batzarra, joan zen eguean.

ko kopuruaren arabera bereizi zituen eszenatokiak: lehenak 80 km karratuko distantzian dauden supermerkatu guztien hondakin organikoak –fruta eta berdurak– jasoko lituzke, bigarrenak erdia, eta hirugarrenak 5.000 tona bakarrik. Aukera hauen arabera, ibertsioa, azpiegiturarako azalera, beharren

**Materia organiko kopuruaren arabera, hiru eszenatoki bereizi zituzten batzarrean**

betetzea edota bero aurrezkiak faktoreak aldatzen dira.

Azalpenen ondorengo eztabaidatik lehenengo eszenatokiak 4 puntu atera zituen, bigarrenak 6,2 eta hirugarrenak 6. Lehenengo alboratu zuten; beste bien azterketan sakonduko dute datoren asteetan. ■ M.O.

**Erregai fosilekiko dependentsia murriztea dute helburu**

IZURTZA

## Udal eraikinak garbitzeko postua betetzeko hautapropa

Lehiaketa publikoan parte hartzeko izena emanda 50 lagun baino gehiago zizutela-eta, leku arazoak aurreikusi eta Mañariko frontoian burutu zuten lanposturako lehenengo proba, joan zen zapatuan: azterketa teorikoan, azkenean, ia hogeita hamar lagunek hartu zuten parte.

**Ia hogeita hamar lagunek hartu zuten parte joan zen zapatuko lehenengo proban**

Lehiaketa-oposizio hau deituta, Izurtzako Udalak esleitzeko gura duena lanaldi erdiko lanpostu bat da; besteak beste, udaletxea, medikuaren kontsultategia, jubilatuaren lokala edo frontoiko aldagelak garbituko dituen langilea kontratatzea.

Asteon udalean azaldu digutenez, lehenengo azterketa igaro dutenek bigarren proba bat burutuko dute orain: proba praktikoa izango da hurrengo hori. ■ I.E.

ELORRIO

## Barikuan batu zen jende gehien Aukera Azokan

Aurtengo Aukera Azokan aurreko aldietan baino gutxiago saldu omen dute EMEko dendariak



Hamasei dendetako generoa ipini zuten salgai.

Bariku eta zapatuan herriko hamasei dendarikeuren generoa hartu eta salgai ipini zuten Hilario Azkarate frontoian. Barikua izan zen egunik jendetsuena, EMEtik azaldu digutenez: "Goizean azoka txikira joaten direnek bertan ere egiten dute bisita".

Giroa sortu zuen azokak frontoi barruan. Salmentei dagokienez, batzuei beste batzuei baino hobeto joan zitzaion, baina, oro har, dendariak aurreko urteetan baino gutxiago saldu dute. ■ A.U.

> Bideoa: [www.anboto.org](http://www.anboto.org)

## Euri uren eta ur fekalen sareak banatzeko lanak Urkizuaranen

Urkizuaranen, orain arte euri urak eta ur fekalak sare beretik joan izan dira. Sareak banatzeko beharrak hasi dituzte, arazoak izan dituztelako hoditeriagaz. Niko Moreno alkateak azaldu duenez, "euria egiten duenean urak irten egiten du, eta bi sareetako ura da kalera irtetzen dena".

Lanak amaitzeko hiru hileko epea daukate, eta amaieran Besaide lantegira zebrabidea atonduko dute.

**Kultur etxe pareko harresia**

Kultur etxe aurreko zebrabide ondoan, jausteko arriskua daukan harresia dago. Casajara etxe-ko jabeek lorategiko metro bi utzi dizkiote udalari, Elizburuko harresia bota eta espaloia zabalitzeko. Udalak ordainduko ditu 34.000 euroko lanak. ■ A.U.

**Jaustear dagoen harresia bota eta espaloia metro bi zabalduko dute Elizburun**

MAÑARIA

## Herri programa osatzeko inkestak banatu dituzte herrian

"Mañariarrek herriaz duten iritzia" jasotzeko helburuz, etxerik etxe banatu duten hogeita galderako inkesta betetzeko deialdia egin die herriko Ezker Abertzaleak mañariarrei. Martxoaren 19a baino lehenago, herriko hainbat gunetan ipini dituzten buzoietan euren iritzia eta kezak jakinaraztera deitu dituzte herritarrek; besteak beste, autobus geltoki ondoan edo plazako kutxazain automatikoen ondoan ipini dituzte buzoiak.

**Herrian zehar ipini dituzten buzoietan jasoko dituzte, bihar arte, erantzunak**

Udalagazko hartu-emana zelari bizi duten adierazi dezatela eskatu die, besteak beste, herritarrei, legegintzaldi honetan udalean jarduterik izan ez duen Ezker Abertzaleak. Herri programa osatzeko baliatuko dute bildutako informazioa. ■ I.E.

Hemen agertu gura baduzu  
**deitu!**  
94 621 79 02

**momotxo**  
t a b e r n a  
plateruen plaza, 12 • 48200 durango  
tel.: 94 681 10 06

gremioen koordinazioa  
**urutiaga**  
Bainugelarako komun ontziak eta berogailuak  
azulejo, zoladura, teila, zeramika, hormigo  
erakusketa, salmenta eta ipintzea  
Solaguren kalea, 3 - tel./ faxa 94 681 44 74 - MATIENA (Abadiño)



## Durangaldean labor

### Unzueta Artisautza eta EHKI establezimenduei sari bana

Domekan Euskal Autonomia Erkidegoko 100 establezimenduri kalitate ziurtagiria emango diete Jaur-laritzak eta Euskaldendak komertzioen konfederazioak. Horietako establezimendu bi Durangokoak dira: EHKI Estudio eta Unzueta Artisautza. Bitor Lizarribar Euskaldendakeko lehendakariak azpimarratu duenez, "komertzio txikiek beti dute bezeroei arretarik onena eskaintzeko helburua".

### Ostruka arrautzagaz egindako tortilla erraldoia

Abadiñon, Traña-Matienako Bodeguilla tabernak 2,5 kiloko ostruka arrautzagaz eta txistorragaz nahaski erraldoia egin zuen joan zen astean. Ondoren, nahaski hori bere ohiko bezeroen artean banatu zuen. Ardoa ere izan zen janaria eztarritik bultzatzeko. Oiloen dozena bi eta erdi arrautza beharko liriteke horrelako nahaski bat egiteko, azaldu zuten.



### Korrika bazkarirako txartelak salgai

Apirilaren 14an Korrika 17 Durangotik igaroko da, eta apirilaren 9an bazkaria egingo dute Plateruenean. Txartelak Abarrak euskaltegian eta Plateruenean daude salgai. Korrika afaria, berriz, hilaren 13an, 21:00etan, egingo dute Txantonesan. Izena jate-txean bertan eman behar da.

#### ATXONDO

## Udalak eskola berriko lanak ez geratzea erabaki du

Eskola alboko etxebizitzetako bizilagunek obrak geratzeko eskatu zuten



Eskola berria 2012-2013 ikasturterako amaituta egotea aurreikusi dute.

**E**skola berriko lanak hasi zituztenetik, eskola alboko bizilagunek hainbat eskari egin dizkiote udalari. Lehenengo, lanak metro eta erdi atzeratzeko eskatu zuten, etxebizitzaren lurretatik legeak dioena baino hurrago hasi zituztela esanda. Eskaera egin eta aste bira, berriz, lanak gelditzeko eskatu zuten, lur horiek kooperatibarenak direla eta lanen lizentzia ilegala dela azalduta. Udalbatzak eskariari uko egin eta lanak ez geratzea erabaki du.

Joan zen asteko egunean landu zuten gaia ezohiko udalbatzan. 60 bat herritar inguru gerturatu ziren. David Cobos alkateak

etxebizitzaren kooperatiba sortu zenetik honako azalpen kronologikoa egin zuen. Azaldu zuenez, 2007an aurreko udal korporazioak Jaur-laritzari eskola egiteko lursai-

**Obrekin jarraitzeko erabakia hartu dute, eta bizilagunekin berba egiteko prest agertu dira udal arduradunak**

lak eman zizkion. Auzokideek lursailen permuta baten ziurtagiria eskatu dute, baina garai hartako alkate Jose Antonio Igarzak argitu du permuta hori ahozko akor-

dioa izan zela eta ez dela burutu. Cobosek prozesuan ez duela ezer legez kanpoko sumatzen esan du: "Udaleko teknikoak lizentzia emateko arazorik ez du ikusi". Bizilagunekin berba egiten jarraitzeko prest agertu da.

#### EAJren iritzia

Oposizioko alderdiak "hainbat irregulartasun" izan direla eta udalak emandako lizentzia "ilegala" dela esan du. Bozketan abstenitu egin ziren eta beste idatzi bat aurkeztu zuten, baldintza batzuekin: "Lurren permuta sinatzea, kalteordaina emanda, eta obraren mugak 5 metro atzeratzea". ■ A.U.

#### ABADIÑO

## Durangaldeko 56. Txistulari Eguna, domekan Zelaietan

Berrogei txistularik, 5 musikarik eta 20 abeslarik jardungo dute domekan, San Trokaz elizan

Martxoaren 20an, 1956an lehenengo ospatu zuten herrian, Abadiñon, ospatuko dute Durangaldeko 56. Txistulari Eguna. Orain 56 urte jo zuten kalejira bera joz emango diote domekako ospakizunari hasiera, *Santa Cecilia* biribilketaren emanaldiagaz: Zelaietako Txanporta kultur etxe parean abiatuko dute eguna, 11:00etan.

Eleder Iturrieta eta Yolanda Etxeitak zuzenduta, kontzertua eskainiko dute Durangaldeko txistulariek, Done Zezili abesbatzak eta beste hainbat musikarik, San Trokaz elizan, 13:00etan.

Antolatzaileek azpimarratu dutenez, 1956ko lehenengo edizioan 7 txistularik hartu zuten

parte Durangaldeko Txistulari Egunean, eta oraingo honetan 41 txistularik, 5 musikarik eta 20 abeslarik jardungo dute.

**1956ko lehenengo edizioan parte hartu zuen eta otsailen hil zen Julian Azkarate gogoan**

Besteak beste, Benito Lertxundi, Oskorri eta Xabier Leteren kantak eskainiko dituzte. Xabier Lete eta 1956ko Txistulari Egunean parte hartu zuen eta otsailaren 22an hil zen Julian Azkarate txistulari abadiñarra gogoratuko dituzte. ■ I.E.

#### GARAI

## Lurpeko zaborrontziak aldatzea aztertzen dabilta

Udaletxe atzean daude lurpeko zaborrontziak. Orain berriak instalatzen dabilta zenbait herritan, eta laster kamioiak eta Garai-ko edukiontzia ez dira bateragarriak izango. Gontzal Sarrigoitia

**Kanpoko zaborrontziak ipintzeko aukera da orain aztertzen dabilzana**

alkatearen berbetan, "ez daukagu berriak ipintzeko lekurik, eta garestiak dira". Hori ikusita, kanpoko ontziak ipintzeko aukera aztertzen dabilta, arkitektoagaz.

Bestalde, auzoetako zaborrontziak ere kamioien ibilbidean bertan ipiniko dituzte, kamioia auzo barreraino sartu ez dadin. Aiartzan, esaterako, papera eta beira biltzekoak ere egokituko dituzte. ■ M.O.

## Durangaldeko Baserritarren Elkarte



Murueta, 6  
Tel.: 94 681 87 92  
48200 ABADIÑO BIZKAIA

ZARATE ELEXPE  
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea  
48215 IURRETA (Bizkaia)  
Tel.: 946 816 673  
Faxa: 946 817 636  
construcciones@zarateyexpe.biz

## BERBAZ &gt;

# “Udalek ipini ditzakegun traba denak ipiniz gero, AHTa arinago geratuko genuke”

Lau urteotan egindako lanari erreparoa egin eta gauzatzeko geratu diren asmoen berri eman digu Atxondoko alkateak

**E**guazten honetan AHTaren desjabetza aktak sinatzeko Bilbora deituta egon da Atxondoko alkatea, Elorriokoagaz eta Abadiñokoagaz batera. Hitzordura agertu egin da David Cobos, desjabetzen prozesuaren kontrako alegazioekin.

*Zer gertatu da Bilboko batzarrean?*

Desjabetzen prozedura txarto egin dutela eta bertan behera uzteko alegazioa aurkeztu dugu. Gauza batzuk ez dituztela aintzat hartu eta horregatik ez nituela aktak sinatuko esan diet. Beste idatzi batzuk ere aurkeztu ditugu, desjabetzak egitekotan lursailetan bertan egin behar direla esanez; legeak hori dio.

“AHTaren gaian, alegazioak ipinita ez sinatuta baino traba gehiago jartzen ditugu”

*Aurrekoetan ez zara aktak sinatzeko momentuan agertu. Orain zergatik bai?*  
Gure helburua beti izan da prozesu guztian ahalik eta traba gehien ipintzea. Hasieran pentsatzen genuen sinatzera ez joatea zela erabaki egokiena. Ikusi dugu guk sinatu ezean, eurek sinatzen dituztela aktak. Alegazioak ipinita, desjabetzen tramitazioa atzeratu egiten da hilabete, eta zelabait esanda, hor egoten jarraitzen dugu. Traba gehiago jartzen ditugu horrela, ez sinatuta baino.

*Trena geratu daitekeela pentsatzen duzu.*

Egunkarietan irakurrita ematen du amaitze dagoela, baina errealitateak, oraingoak, kontrakoa esaten dit; estatu bat hamar urtean tren bat egin guran dabilela, egin ezinik. Krisiak mesede egiten digu kasu honetan. Apustu politikiko hutsa da, arlo tekniko eta ekonomikoan ezelako aurreikuspen bakoa. Jende asko etsita dago; Ezker Abertzaleko udal asko ikusten dut, Gipuzkoan, adibidez, aktak sinatu ez eta ahalegin gehiago egin barik. Beharbada uste dute ez dagoela zereginik, eta herriko arazoetan zentratzen dira. Bakoi-tzak ikusiko du. Nik uste dut gauza biak egin behar direla; herrirako lan egiten eta tren gelditzen saiatuko gara. Ipin daitezkeen traba guztiak herri denetan ipiniko balira, askoz arinago geratuko genuke.

*Legegintzaldia amaitze da. Lau urtean egindakotik zer nabarmenduko zenuke?*  
Herriak eskatzen zituen hainbat



“Lau urteotan egindakoagaz pozik nago, baina arantzaxoa daukat Barraskiko etxebizitzak eta biribilgunea ezin egin izanagatik”

azpiegitura garatu ditugu; autobus geltokia, ludoteka, gaztetxea berriztatzea, osakidetza handitzeko beharrak, etxebizitza sozialak... Oso pozik gaude. Horrek ez du esan gura guk gura genuen guztia egin dugunik. Arantzaxoa dut Barraskiko etxebizitzekin eta biribilguneagaz. Barraskin dena lotuta zegoen, obrak hasita, higiezin krisia hasi zenean. Obrak gelditzeaz gainera, ekonomikoki ere kalte handia eragin digu; udalak hor diru bat dauka hartzeko, eta ezin du. Biribilgunean ere, hasieran dena lotuta zegoen, baina

azken momentuan, erreka dela eta, baimena atzera bota ziguten. Hirigintza Planean beste planteamendu bat egin dugu biribilgunea egiteko.

*2011ko aurrekontuetan ez duzue inbertsio handirik aurreikusi.*

Ez, baina horrek ez du esan gura herria geldirik egongo denik. Iaz hasitako hainbat gauzagaz behar-rean jarraitzen dugu, eta inbertsiorik eskatzen ez duten hainbat lane-tan gabilta; hirigintza plana, frankismoaren biktimen gaineko ikerketa, parte-hartzea...

**David Cobos •**

Atxondoko alkatea

- 36 urte
- Abokatua da ofizioz

*Parte-hartzeari dagokionez, pleno eta batzorde irekiak egin dituzue...*

Bai. Udaletxetik ezin diogu jendeari eskatu erabakietan parte hartu dezan ezelako informazioari ematen ez badiogu. Uste dut jendea ohitu dela eta ez lukeela ulertuko atzerapausorik egitea; informazioari ez egotea, batzordeak itxiak izatea...

“Izurtzakoa lako galdeketa egin gurako genuke Hirigintza Planagaz”

*Hirigintza Plana zer fasetan dago?*

Gabonak orduko aurrerapena onartu genuen. Ekarpenak jaso ditugu, dozena erdi bat, eta horiek aztertzen gabilta. Badago zer ikasi; guk ez dakigu beste inork baino gehiago; gai askoren inguruan gutxiago dakigu batzuetan. Ekarpenak aztertuta, hasierako onarpena emateko txosten-na egingo dugu. Horren ondoren alegazioak letozke, eta betiko onarpena Aldundiak egingo du. Hasierako onarpen horren aurretik Izurtzan egin duten antzeko galdeketa planteatu gurako genuke. Hor badaude hiru proposamen, potoloenak-edo, eztabaida sortu dezaketena: Markoidan etxebizitzak eraikitzea, Itziar tabernaren alboan polikiroldegia egitea eta oraingo poligonoaren pareko lurra industriarako birkalifikatzea. Eztabaida alor bitan egin daiteke; etxean zein industriaren kokapenean eta kopuruan.

*Zeruste duzu Ezker Abertzalearen egoeraz?*

Zalantzak daukat. Eztabaida bakarra juridikoa izan beharko litzateke, baina eztabaida politikoa egiten dabilta. Legea betetzen bada ez dago ezer eztabaidatzeko, eta lege horretan ez dauden gauzak exijitzen hasi dira. Hori legea zentzubakoa izanda; ezin da inor zigortu epaiketa barik. Guk ahaleginak egingo ditugu batera edo bestera egoteko, eta ez bagaude, kaletik behar egiten jarraituko dugu. ■ A.Ugalde

> Bideoa: [www.anboto.org](http://www.anboto.org)



# DURANGO

## ardosALTSAN 2011

### IV. Ardo eta delikatessen feria

Martxoak 26  
11:00 - 15:00 · 17:00 - 21:00  
Landako Gunea · Durango

SARRERA 12 €

BUNGAK: Urdaiazpikoa · Foie eta pateak · Izokin ketua · Txikiakzko sukailarritza · Gaztaren tunela · Kafea · Ardoa dastatzen ikasteko sarrak · Aparkelekua

**OSTIAK BARTEHARTZAILEAK**

BODEGAS OSTATU Rioja Alavesa  
 COMPAÑIA BODEGUERA VALENCISO C. Rioja  
 PAGO DE LAS ENCOMIENDAS Vino Tierra de Extremadura  
 CIA. VINOS TELMO RODRIGUEZ C. Rioja  
 DOMAINE DE LA SOUMADE Pasteau  
 JEAN PIERRE GROSSOT Chablis  
 DOMAINE DE PALLUS Chironi  
 CHAMPAGNE ANDRE CLOUET Champagne  
 RENÉ BOUVIER Merlot  
 DOMAINE DE LISES Crozes Hermitage  
 BODEGA MURILLO VITERI C. Rioja  
 CERVEZAS LEIKEM Bayern  
 BODEGAS RUIZ DE VÑASPARE C. Rioja  
 VIÑEDOS Y BODEGAS SOLABAL C. Rioja  
 MÁS QUE VINOS Vinos de Toledo  
 BODEGA ELIZALDE Bizkaia Txakolina  
 BODEGA ADEGAS QUINTA COUSELO Ribas Baixas  
 BODEGAS HNOS. DEL VILLAR Rioja  
 HUGUET DE CAN FEIXES Cava de Penedès  
 B. FRAZOLS LIKION Rioja  
 CASTILLO DE PERELADA Empordà  
 PENFOLDS Australia  
 PAGO DE LOS CAPELLANES Ribera del Duero  
 CORAL DEL DUERO Toro  
 TANDEM Navarra  
 XIMÉNEZ-SPINOLA Jerez  
 BODEGAS ITASAMENDI Bizkaia Txakolina  
 CASTILLO DE CUZCUBRITA C. Rioja  
 CARMELO RODEÑO Ribera del Duero

TRASLANZAS Cigales  
 ÁNIMA NEGRA Illes Balears  
 PAZO PONDAL Ribas Baixas  
 PAZO CASANOVA Ribeiro  
 CASTILLO DE MENDOZA C. Rioja  
 BODEGA INURRIETA Navarra  
 JANE VENTURA Penedès  
 LUBERRI MONJE AMESTOY C. Rioja  
 BODEGAS HNOS. SASTRE Ribera del Duero  
 BODEGAS SONSIERRA C. Rioja  
 BODEGAS ESTEFANÍA Bierzo  
 BODEGAS ARAGONESAS Campo de Borja  
 VIÑEDOS DE NIEVA Rioja  
 BODEGAS MARTÚE Castilla-La Mancha  
 FINCA TORREMILANOS Ribera del Duero  
 BODEGA CASTAÑO Yecla  
 LES VIGNARONS DU PAYS BASQUE Francia  
 VIÑEDOS DEL CONTINO C. Rioja  
 VIÑA REAL C. Rioja  
 CUINE C. Rioja  
 VALSANZO C. Rioja  
 REGALIA DE OLLAURI C. Rioja  
 LUIS ALEGRE C. Rioja  
 RODA C. Rioja  
 RECAREDO Cava  
 LES CAVES DE PYRENNE Francia  
 BODEGAS JAROS Ribera del Duero  
 BODEGAS LAUNA C. Rioja  
 BODEGAS ORTUVA C. Rioja  
 BODEGA AZLOA OXINBALTZA Bizkaia Txakolina

BODEGA VIÑA IZADI Rioja Alavesa  
 BODEGAS ORREN Rioja Alavesa  
 BODEGA FINCA VILLACRECES Ribera del Duero  
 BODEGAS VETUS Toro  
 BODEGAS CHAVES, S.L. Ribas Baixas  
 BODEGA PAGO DE SANGABRIEL Navarra  
 OTXANDURI UPATEGIA Bizkaia Txakolina  
 BODEGAS MUGA C. Rioja  
 ALVARO PALACIOS Rioja  
 DESCENDIENTE DE J. PALACIOS Bierzo  
 CELLER DE CANTONELLA Costers del Segre  
 DELAMOTTE Champagne  
 TOMÁS CUSINÉ Costers del Segre  
 VIÑA AL LADO DE LA CASA Yecla  
 COOPERATIVA DE SAN ALEJANDRO Catalunya  
 PAISAJES Y VIÑEDOS C. Rioja  
 PICOS DE CANARIEZO Vino de la Tierra de León

**DELIKATESAK**

QUESOS GARMESAN Galdakao  
 SALMÓN Y BONITO AHUMADO KEJA Cantabria  
 JAMÓN SIERRA MORENA Córdoba  
 CAPÉS LA TOSTADORA Vitoria-Gasteiz  
 ACEITE VALEDERRAMA Córdoba  
 IMPERIA PATOS Y DERIVADOS Girona  
 ANCHOAS KARMELO TOJA Bernabé  
 MAHTECADAS Y GALLITAS SALINAS Navarra  
 TOMATE IBÉRICO EN QRT Sarriena Catering

Informa zaitez "Ardo Saltsan" turismo-programa bereziari buruz....



**Babesleak**



**Laguntzaileak**



# IRITZIA >

gutunak@anboto.org

## Gutunak @

### Milesker, Mari.

Zure mendiaren babespean bizi direnen artean euskarekiko maitasuna zabaltzeagatik, eskerrik asko. Zure goizeko ihintz tantekin gure lakua betetzen laguntzeagatik, eskerrik anitz. Anbototik abiatuta eta Larruneraino mendiz mendi ibili den euskalzaletasuna eta elkartasuna garatzen laguntzeagatik, nola eskertu?

Zure babespean den Durangaldeak harrera ezin hobea egin digu Larrunen itzalean eskuaren besta egiten dugun eskualdunoi. Gure Euskal Herriko ama lurak sorturiko magiak edo euskararen indarrak horrelako mirariak lortzen dituen deliberatzea ez da lan erraza. Hori dela eta, deliberorik ez hartzea erabaki dugu eskuaraz mintzo girenek euskaraz berba egiten dutenengana heltzeko. Eskerrik emateko gutuna zuri bidaltzea hautatu dugu, euskararen indarrak bultzatuta lagundu gaituztenak ere zure altzoran hartuta dituzulako.

Mari, zure indarra omentzen zuten garai bateko sortzinekin bezala, gaur egungo euskaldunok ere zer sufritu badugu, bereziki gure ondare preziatuenak ezagutza ofizialik eta babesik ez duen lurralde honetan. Baina historiak erakutsi digu eraso gogorrenen aurrean ere euskaldunok aintzina segitu dugula. Eredu horri heldu eta etorkizuneko euskaldunek gogoan hartuko duten eraso berri baten garaileak izateko lanean jarraituko dugu.

Tontorretik gailurrera euskararen aldeko pausu garrantzitsu eta hunkigarria emana izan da, orain denen artean aldapan behera egin eta Senpereko lakuraino joatea besterik ez dugu behar.

Gure Senpereko aintzira laku bat besterik ez da munduan, baina ez da erraza horrelako maitasuna, indarra eta besta bere inguruan biltzen dituen besterik atzematea. Aurrean ere mundu bat bildu nahi dugu bere inguruan; euskaltzaleen munduak berriz ere bertan bat egitea da gure xedea. Hitzordu horretan gurekin izatea espero dugu bihotzetik. Mintza zein berba, eskuara edo euskara, talo zein ogitarre, sagardo ala ura, dantza edo Ibilaldia denak izanen gara bat maiztaren 8an Senperen eginen den Herri Urratsen.

Gure eskerrik beroenak eta laster arte.

Seaska. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako ikastolen federazioa

### Martxoaren 25ean, langileok gure herrietako plazetara!

Injustizien aurrean itsu-mutu-gor egoteak ez duelako balio. Hori da, hain zuzen ere, langile mugimendua urte luzetan indartsu egin duen ezaugarria; konpromisoa, elkartasuna, lankidetzaren balioa eta, nola ez, eskubideen defentsa.

Horregatik bereziki, gaur inoiz baino gutxiago, ezin ditugu senideak eta euskal preso politikoak bakarrik utzi.

Beraientzako josi duten amaraun sare horretan bide lagun eduki behar gaituzte herritar guztiak, baina, batez ere gu, langile-ria, borrokaren balioa ezagutzen dugulako eta borrokaren bidez erronkak irabazten direla ondo baino hobeto dakigulako.

Guztiok batera sakabanaketari ateak itxiko dizkiogu, zigorraren hiru laurdenak beteta dituztenak etxera ekarriko ditugu, bizi osoko espetxe zigorrekin bukatuko dugu eta bisitetan tratu iraingarri gehiagorik gerta ez dadin lortuko dugu.

Eta zuk, irakurle, pentsatuko duzu ea zer egin dezakezun, honetan guztian zein izan daitekeen zure papera. Erraza da, lagun: zuk erabakitzen duzuna, baina, gutxienez, martxoaren 25ean zure herriko plazan egingo den kontzentrazioa joan zaitez.

Guk gure aldetik, dei egiten dizuegu, LABeko delegatu guzti-iei, afiliatuei eta gure lagun zaretan guztiok, euskal preso eta iheslarien eskubideen defentsan kalera atera zaitezten. Azken ostiralean, urratsa ematetik bidea egitera pasa zaitezten!

Durangaldeko LAB

## Klik batean @



### Zuloak errepidean

Matienako Trañabarren kaleko argazkia; bertan errepidean dauden zulo bietako bat ageri da. Ea udaletxean hori konpontzeko zerbait egiten duten. Zergak kobratu bakarrik ez, errepideak ere txukun mantendu behar dira.

Ibon Lizundia Leturiaga (Matiena-Abadiño)

## Sei hankako mahaia



Idoia Agorria  
PSE-EE

### Zirkulazioa eta bizi kalitatea

Aire garbia arnastea eta ahalik eta denbora gutxien galtzea zirkulazio auto-iletan alderdi lagungarriak dira herritarren bizitza-kalitatea hobetzeko. Elkarrekin lotuta daude biak.

Durangoko Alderdi Sozialisten ustez, mugikortasuna lehenetsun bat da eta izan da. Gure proposamenei esker, aurrerantzean Durango semafororik gabeko herria izango da. Hala, bada, ez da auto-ilararik sortuko, eta ke gutxiago egongo da.

Aurtengo aurrekontuari zuzenketa bat egin diogu, Fray Juan de Zumarraga eta Alluitz kaleen arteko bidegurutzean biribilgunea egiteko. Tokiko Inbertsiorako Estatuko Lehen Funtseko laguntzak baliatuz (E Plana), Alluitz eta Sasikoa kaleen arteko biribilgunea egin genuen. Obra horren bitartez, bidegurutze bateko zirkulazioa arintzea lortu genuen, bidegurutze horretako itxaronaldia amaigabea iruditzen baitzitezaien oinezkoiei eta ibilgailuei.

Aurreko udal aurrekontuan, Landako eta Francisco Ibarra kaleen arteko biribilgunea sartu genuen. Horren bidez, alde horretako zirkulazioa nabarmen hobetu da, hala oinezkoentzat nola ibilgailuentzat.

Bestalde, kezkatuta gaude hiribildura iristeko sarbideetan izaten diren auto-ilarakikusita, batez ere, Elorrioko errepidetik sortzen diren ilarekin. Hargatik, gobernu taldeari eskaera egin diogu Durangoko kanpoko erantzuna ixteko Urkihegoaldeko zatian; Tabiratik Sabecoko biribilgunera bitartean.

Hori betez gero, babesa emango diegu iazko aurrekontuei. Gure ustez, apirilean abiaraziko den proiektu horrekin, eta, era berean, Eusko Jaurlaritzak trenbideak lurperatzeko egingo dituen obrekin, auto-ilara gutxiago egongo da Durangon, zirkulazioaren presioak ere behera egingo du, eta gure herria atseginagoa izango da denentzat.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)  
diruz lagundutakoa



**anboto**  
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarteak  
2011ko martxoaren 18a - 10. urtea - 408 zk.

Laguntzailea:



Eta honako udal guztiak:



**Erredakzio burua:**

Joseba Derteano.

**Administrazio burua:**

Itziar Belar

**Administrazioa:**

Miren Abasolo.

**Publizitatea:**

Itziar Azula, Goretti Alonso eta

Amaia Huarte.

**Erredakzioa:** Aitziber Basauri, Itsaso

Esteban, Markel Onaindia, Amaia

Ugalde, Aritz Maldonado.

**Maketazioa:** Ainhoa Arizmendiarieta.

**Testu zuzentzailea:** Igor Elortza.

**Argazkilariak:** Kepa Aginako eta

Juanra de la Cruz.

# KULTURA<sup>></sup>

## MUSIKA > ELKARRIZKETA

Datorren eguenean, martxoaren 24an, Durangoko Platerueneko Kantulagun ekimenaren barruan saio bat gidatzera etorriko da **Mikel Markez** errenteriarra. Saioa zelan pentsatu duen azaldu digu, besteak beste.

### Zer da Platerueneko emanaldirako prestatu duzuna?

Amodioaren gaia jorratu nahi dut bereziki. Normalean libreago egiten ditut ikastaroak, gai konkretu bati heldu gabe, baina kasu honetan beste hiru lagunekin kantutegia konpartitu behar zenez, gai konkretu bat jorratzea pentsatu dut. Amodioaren edo harremanen gaia euskal kantagintzako gai printzipala izan da, bestetik, mundu osoko kantagintza guztietan bezala.

### Ez dakit zehazki Kantulagun lakoak izan diren egin dituzunak, baina modu honetako saioetan jardun izan duzu, ezta?

Hogei bat urte izango dira lehen kantu ikastaroa egiteko gonbidapena jaso nuela. Geroztik, urtero aritu izan naiz han edo hemen. Berrehun bat kantuko bilduma batetik abiatzen naiz eta ikastaroaren luzeraren arabera egokitzen dut. Orain ezingo nuke egin, baina gogoan dut Ondarroan 40 orduko ikastaro bat egin nuela, eta, nik 200 kantu eramanean banituen beste 200 irakatsi zizkidatela hango ikasleek...

### Gustura aritzen zara entzuleen parte-hartzea oinarri duten emanaldiotan?

Oso harreman zuzena eta gertukoa sortzen da jendearekin. Kantuak batu egiten du; hori probatu duen edonork daki. Distantzia labur hori asko gustatzen zait: eszenatokitik kanpo, borobilean eserita, normalean ikusleizaten direnen maila beretik kantatzea.

### Berrizko Kultur Etxean izan zinen orain hilabete gutxi. Zelako oroitzapena duzu?

Oso talde polita bildu ginen. Oso jende jatorra eta atsegina. Han ere, beti bezala, kanta pare bat ikasita joan nintzen etxera...



## “Orain kantagintza nire bizitzan txertatuago dagoela esango nuke”

*Elkarrizketa batean irakurri dugunez, orain hamarkada bi kantagintzan hasi zinen hasierako urteetan, urtean 200 kantaldieskaintzen zenituen. Gehiegizkoa zen erritmo hura?*

Momentu hartan ez nuen modu horretara bizi, zurrunbilo hartan gustura bizi bainintzen. Ikastaro soziologiko trinko bat izan zen, eta euskalkiez gain Euskal Herriko geografia puska bat ere ikasi nuen, gainera. Oraingo ikuspuntutik iruditzen zait gehiegizkoa, gehienbat gibela eta urdaila osasun onean behar dira eta...

“Bereziki amodioaren gaia jorratu nahi dut Platerueneko egueneko Kantulagun ekimeneko saioan”

“Ez daukat kantak egiteko urgentziarik, ateratzen diren bezala ateratzen dira, presarik edo presiorik barik”

“Distantzia laburra gustatzen zait; eszenatokitik kanpo, borobilean eserita, ikusleen maila beretik kantatzea”

*Azken urteetan beste martxa batean diharduzula ematen du. Zelan bizi duzu musikagaz daukazun harremana orain? Zer alde dago hasierako urte haiekiko?*

Orain kantagintza nire bizitzan txertatuago dagoela esango nuke. Ez daukat kantak egiteko urgentziarik, ateratzen diren bezala ateratzen dira, presarik eta presiorik gabe. Orain kantak eta kantaldiak gehiago dira olatuak bezala, badatoz eta badoaz, baina ez dira inoiz agortzen.

*Zer egoeratan, zer leku eta unetan, gertatzen zaizu sorkuntza emankorren?*

Egia da lanean hasten naizenean obsesibo samarra naizela. Hau da, hilabete egon naiteke ezer egin gabe, eta gero bi astetan dena utzi eta 24 orduak gutxi direla kantak sortzeko. Purrustadaka bezala aritzen naiz. Orain bat ere ez, orain topera.

*Zu eta zure musika legez, entzulegoa ere aldatu egin da. Zelako da entzulegoagaz daukazun hartu-eman?*

Nik aldaketa gehiago sumatzen dut antolakuntza kontuetan entzuleengan baino. Suertez, gutxi edo gehiago, beti etorri izan zait jendea kantaldietara, eta normalean gustura joan ohi dira etxera. Nik 20 urte nitueanean adin berbereko jendea izaten nuen jarraitzaileen artean, eta orain 40 ditudanean nire adinekoez gain 20 urtekoak ere ikusten ditut kantaldietan.

*Zer proiektu edo helburu daukazazu musikagintzari dagokionez?*

Aurtengo urtea amaitu aurretik disko berria kaleratzea da nahi nukeena, eta espero dut garaiz heltzea. ■ I.E.

## Benito Lertxundiren mundu ikuskeraren inguruko liburua

Musikagaz lotuta beti, baina diskoak kaleratu eta zuzenekoak eskaintzetik aparte, azken urteetan beste hainbat eginkizunetan ere jarduna da Mikel Markezek. Bestelako egitasmo horiei dago kienez, datozen hilabeteetarako dituen proiektuez galdetu diogu, eta hainbat pista eta “sekretu bat” ere kontatu dizkigu: “Bi proiektuekin dihardut aurren: batetik, Pako Aristirekin liburu batean lanean

dihardut, Benito Lertxundiren mundu ikuskeraren inguruan. *Benito, plazer bat izan duk* izango du izenburu; bestetik, irratsaio bat egiten hasiko naiz udan, baina hau oraindik sekretua denez, ez esan inori!”, aurreratu digu umorez.

Duela zenbait aste Argia astekarian egin zioten elkarrizketan eman zuen Markezek azken urteetan Pako Aristi idazleagaz eta Benito Lertxundi musikariagaz lotzen duen harremanaren berri. Afaltzeko batzen ei dira, eta, Argian kontatzen zenez, “gauza askotaz aritzen gara afari horietan”: euskal gatazkaz, erlijioari eta transzendentziari buruz zein sexuaz, arteaz eta sorkuntzaz. Harreman horren isla izango da liburua.

Pako Aristigaz dihardu Markezek, Benito Lertxundiri buruzko liburua prestatzen

ZINEMA ETA MUSIKA >

# 'Amerikanuak' dokumentala ikusgai eta entzungai Arriolan

Audience taldeak ipini dio dokumentalari musika, eta zuzenean joko du gaur Elorrion

**E**statu Batuetako Nevadako Elko herrira joandako hainbat emigrante euskaldunen historia kontatzen duen dokumentala da gaur, 22:30ean, Elorrioko Arriolan aukeran izango duguna. "Herrialde arrotz batean bizitza duina egiteko borrokarri, nostalgiari eta komunitate bateko kide sentitzeari buruz" dihardu *Amerikanuak* lanak.

Arriolan gaur, Nacho Reig-ek zuzendu eta Gorka Bilbaok editaturiko ikus-entzunezkoa emango dute, baina horretaz gainera, Audience talde gernikarrak doku-


mentalerako sorturiko kantak ere zuzenean izango dira entzungai.

Audience talde bizkaitarrak, 19 kanta sortu ditu *Amerikanuak* dokumentalaren soinu-banda osatzeko; blues, rock eta folk ukiak dituztenak dira konposizioak, Gernikako musikariek dokumentaleko irudietan eta berbetan oinarri hartuta sortutakoak guztiak.

Gitarrak, biolinak, pianoak, steel gitarra eta programazioak uztartzen dituzte Audience-ekoek, 2010ean Bidehuts plataformagaz argitaratu zuten lanaren zuzenekoan eskaintzeko. ■ I.E.

'Amerikanuak' lana, Audience-en zuzeneko soinu-bandak lagunduta

AEBetara emigratu zuten euskaldunen historia kontatzen dute filmean



ANTZERKIA > JAIALDIA

Emanaldiak hartuko dituen Errota kultur etxean aurkeztu zuten atzo domekan lehenengo saioa izango duen Antzerkiño antzerki jaialdia. Marisa Vazquez kultura zinegotzia eta parte hartuko duten hiru antzerki taldeen ordezkariak batu ziren agerraldian.

Umeei zuzenduriko bost antzezlanean osatu dute Antzerkiñoren egitaraua

Lehenengo edizioa duen jaialdirako umeentzat pentsatutako bost antzerki lan ekarriko dituztela azaldu zuen Marisa Vazquez zinegotziak, eta erakustaldia "jarraipena izateko helburuagaz" jaio dela.

Kukubiltzok emango dio jaialdiari, martxoaren 20an, hasiera: jatorri ezberdineko ume biren arteko maitasun istorioa kontatzen duen *Txirrikiz* kale-antzerkia eskainiko du, 12:30ean, Errota kultur etxearen inguruan; *Uharte zezaguna* aurkeztuko du Markelñek, egun berean, 18:00etan.

Galiziatik datozen konpainia biren lanak ere izango dira Antzerkiñon ikusgai: *Tropicallo* antzerki taldearen *El día que llegó una nube y llovió*, martxoaren 26an, 12:30ean izango da; eta *El retrete de Dorian Gray*-ren *Ruaaire*, 27an, 12:30ean.

Gorakada taldearen *Ogro txikia* obra sarituak itxiko du jaialdia, apirilaren 3an. ■ I.E.

Bideoa: [www.anboto.org](http://www.anboto.org)

## Hiru antzerki talde euskaldun eta galiziar bi Abadiñoako Antzerkiñon

Joan zen astean aurreratu genuen jaialdiko parte-hartzaileen zerrenda luzatu egin dute; Errotan egin zuten atzo jaialdiaren aurkezpena, eta domekan da lehenengo emanaldia



GEURE DURANGALDEA

Arantza Arrazola  
San Agustino  
kudeatzailea



## Zorionak 'Errautsak'-ekoei

Egun hauetako kontua da Donostia Antzerki Saria *Errautsak* antzezlana eskuratu berri duela. Duda barik, azken urteotan euskaraz sortutako lanik borobilenen artean dago Artedrama, Le petit Théâtre de Pain eta Dejabu taldeen arteko produkzioa.

Le petit Théâtre de Pain gurean formatu txikiko piezengatik ezagutzen dugu; adibidez, *Aulki Hutsa*. Hala ere, Frantzian, erreferente argia dira; kaleko antzerkigintzan bereziki, festival handi guztietan hartzen dute parte. Egoitza Lapurdiko Luhuson dute. Berez, bost herri txikik osatzen duten mankomunitatearena da; Kanbo da herririk handiena. Pozik hartu genuen egoitza ezagutzeko gonbita! Harri eta zur gelditu ginen bertan ikusitakoak ikusita...

Antzerki produkzioari zuzendutako fabrika: horixe izan zen topatutakoa! Luhuson erdi ahaztutako eraikin ederra zegoela jakinda, Le petit Théâtre de Painek gune eszeniko bihurtzeko proposamena luzatu zien udalei: agertokia, baliabide teknikoak, eserleku-patioa... Berezitasuna, ordea, helburuan dago: erakusteari baino, sortzeari ematen diotelako garrantzia. Hiru norabidetako sormena lantzen dute antzerki fabrika horretan: kale antzerkigintza, mugaz gaindiko euskarazko sorkuntza eta euskal dantzetan oinarritutakoa, Euskal Dantzarien Biltzarrari esker.

Zalantza barik, proiektu aparta Luhuson ikusitakoa, honetan gabiltzanok ez dugu halako beste esperientziarik ezagutzen.

Ikusitakoak ikusita, neure buruari galdetzen diot ea hemen norbaitek imajinatzen ote dituen bost-herri txiki (eta handi) euren aurrekontuetako sos batzuk halako proiektu batera bideratzen? Hain gertu... eta hain urrun.

**PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia**

MARTXOAK 18 20:30ean KORRIKA 17. Doan BAKARRIZKETA LEHIAKETA. BIZKAIKO FINALA.

MARTXOAK 19 19:00etan DANTZALDIA. Doan AIKO ERROMERIA.

MARTXOAK 22 19:30ean DOKUMENTALA. Doan KOLORETAN BIZI ZINEMALDIA.

MARTXOAK 24 20:00etan Doako izen emotea KANTULAGUN. GONBITADATUA: Mikel Markez

MARTXOAK 25 22:00etan KONTZERTUA. 8-10 € BIZARDUNAK + KHAMUL

Eguneko menua asteleheneetik larunbatera Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

[www.plateruena.net](http://www.plateruena.net)

**SESAMO IREKI ZAITEZ HAUR ANTZERKIA**  
Caleidoscopio Teatro (Zaragoza)  
Martxoak 20 • 18:00

**GLORIAREN KANTUA estreinua**  
Khea Ziater (Bilbao)  
Martxoak 24 • 20:00 euskeraz  
Martxoak 25 • 20:00 gazteleraz

Martxoak 13 • 19:00

San Agustín KULTUR GUNEA DURANGOKO UDALA

**HITZ**

Liburudenda

11.04 601 07 76 Artekale, 14 Durango

# MODA GEHIGARRIA >

anboto | 2011ko martxoaren 18a, barikua



moda 2011



www.boboli.es

Astarloa 15 - Durango  
Tel. 94 623 26 32  
0 hiletik 16. tailararte

Ezagutu mundua Boboliren eskutik.



BÓBOLI

# Alai eta fresko, udarako prest



Gazte eta helduentzako arroparen joeragaz bat eginda, informaltasuna, freskotasuna eta alaitasuna adierazten duten koloreak eta formak dira umeen arropa dendetako eskegailuetan eta haur parkeetan udaberri eta uda sasoirako joera nagusi. Datozen hila-beteetan datozkigun egun epel eta beroetarako apropos, alkandora, soineko, praka eta gona laburrak dira dendetako katalogoetan ageri diren joeren aurrerapen interesgarriak.



**Egun epel eta beroetarako aproposak diren soineko eta alkandorak**

Kolore biziak erabiltzea datozten hileetarako umeen jantziak diseinatzeko gehienek baliatzen duten ezaugarri nagusia. Kolore biziko

kato zein mutikoentzat manga laburreko koadrodun alkandorak nagusitu dira.

Itxura 'hippie' eta informaleko praka bakeroek eta neskato zein mutikoentzako praka laburrek arrakasta segurtatua izango dute.

Neskatoentzako, gona laburrak ere hainbat eratakoak topatuko ditugu dendetan. 'Bombacho' erako prakak ere asko ikusiko ditugu, luze zein laburrak.



rako arropetan. Azken denboraldietan urteko beste sasoi batzuetarako egin dute moduan, udaberri eta udarako ere diseinatzaile askok plaza-ratu dituzten proposamenek kulturarteko ezaugarriak daukate: hainbat kulturatako janz-

**Praka bakeroak udaberriari; gona eta soineko laburrak udan**

kamisetak, askotan motibo koloretsuekin estanpatuak, ikusiko ditugu umeentzako



## Informal

Gazte eta helduentzako arroparen tendentziak jasotzen duen legez, informaltasuna, freskotasuna eta alaitasuna adierazten duten kolore eta formak dira datozten hiletarako joera nagusiak.

arropa dendetan datozten hiletarako koloreak, ani-

maliak eta abar irudikatzen dituzten estanpatuak jasotzen dituzte udaberri-udarako proposamenetarako askok. Datozkigun sasoi epel eta beroetarako aproposak diren soineko eta alkandorak eskaintzen dituzte, besteak beste,

**Neskato zein mutikoentzako, manga laburreko koadrodun alkandorak**

umeentzako arroparen diseinuan jarduten dutenek. Mutilentzat, "arrantzale" itxurako looka, eta nes-

Formalitaterik eza eta argitasuna adierazten duten eta udaberri zein uda sasoiarekin harrimanzuzena daukaten koloreak dira bilduma gehiengotan nagusi: fucsia, larrosa, horia, gorria eta berdea asko erabili dituzte sasoi berri-

keretan bilatzen dute diseinatzaile askok inspirazioa: ezaugarri etnikoak dituzten arropak diseinatzeko; Indiako janzkeran oinarrituta, esaterako.

Proposamenerako askotan, bestalde, ezaugarri etniko horiek eta janzkera urbana uztartzen dituzte umeentzako arropa sortzaileek.

## Osagarri

Beharrezko eta hain erabilgarri diren aipaturiko praka, kamiseta, alkandora eta soinekoak osatu eta eurekin konbinatzeko hainbat osagarri ere jasotzen dituzte katalogoek; diademak, belarritakoak, lepokoak...





# Apurto arte ibiltzeko

Umeen oinetakoen aukera geroago eta ugariagoa eta koloretsuagoa da. Txikitxoenetatik hasi eta gaztetxoeren tailetaraino, kolore biziko hainbat modelo ikusi ahalko ditugu udaberri honetan. Nagusientzako oinetakoen bertsio txikiak ere geroago eta gehiago dira. Erosotasunak garrantzia handia du; oinetakoek apurto arte ibiltzeko modukoak izan behar dute.

Kirol zapatilak, txarolezko zapatak, sandaliak, marrazkidun oinetakoak... zapata denetako erakuslehoetan udaberri gertu daugula umeen zapatetan ikusten da. Kolore aukera handiagaz, geroago eta modelo gehiago daude etxeko txikientzat.



## Belkrodunak

Umeen erosotasunerako belkrodun oinetakoak izango dira nagusi aurtengo udaberrian. Txikienentzat zapata eta zapatiletan, batez ere, horrelako oinetakoak topatuko ditugu, eurek erraz

ipini eta kentzeko modukoak. Gaztetxoeren oinetakoei dago kienez ere, modelo asko ikusiko ditugu belkroagaz lotzekoak. Zapatiletan, batez ere, horrelako oinetako ugari egongo da.

**Lokarridunak baino gehiago, belkrodun oinetakoak ikusiko ditugu**

## Nagusienak lakoak

Geroago eta gehiago, nagusientzat egiten dituzten antzeko modeloak egiten dituzte oinetakoen fabrikatzaileek umeentzat ere. Adibidez, zapatila eta sandalien arteko hibridoak ikusiko ditugu. Erosoak eta freskoak izaten dira oinetako horiek, oin guztia eusteagaz batera beroagaz oinak egostea eragozten dutelako. Duela urte bitik ohiko sandalien alboan ikusten ditugu erakuslehoetan.

Freskoak izateaz gainera, ibilaldi luzeak egiteko egokiak izaten dira horrelako oinetakoak, kirol-oinetakoen antza daukate askok; zola kautzozkoa izaten dute. Modelo batzuk sandalia itxura handiagoa dute eta beste batzuk kirol-oinetakoen antza; zuloan zapatilak dirudite. Oinetako hibrido horiek galtzerdiekin zein galtzerdi barik jantzi daitezke. Beti-betiko sandaliak ere era-

**Ohiko sandaliak ugari ikusiko ditugu udaberrian; orkatiletan lotzen direnak**



biliko dira aurten, tonu argikoak eta kolore askotakoak. Neskek, batez ere, emakume helduek erabiltzen dituzten moduko sandaliak erabiliko dituzte. Orkatilan belkroagaz lotzekoak izango dira, ume eta gaztetxoak ahalik eta erosoan ibiltzeko.



**Sandalia eta zapatilen arteko oinetako mota ugari fabrikatzen dituzte gaur egun**

## Zapatilak

Orain urte batzuk kirol zapatilak eta, oro har, umeentzako zapatilak zuriak izaten ziren. Orain kostatu egiten da horrelakoak topatzea. Kolore guztietako zapatilak salduko dira aurten ere. Punta zuridun oinetakoak eta botak ere eskuragai edukiko dituzte ume eta gaztetxoek. Marrazki z betetako oinetakoak ere ikusiko ditugu, lorez, animalien marrazki edo superheroiz apaindutakoak.

Zapatila eta sandaliez gainera, tela finagoz egindako oinetako freskoak ere izango dira udaberri honetan ume eta gaztetxoentzat.

Abarketa estiloko oinetakoak ikusiko ditugu, hainbat koloretan.



**Koloredun eta marrazkidun zapatilak eta abarketak daude modan**



# Nortasun propioa duten bitxiak



Durangoko Karan bitxidendak nortasun propioagaz behar egiten du, eta hori dute bereizgarri nagusietako bat. Enkargu bidez ere behar egiten dute, bitxi eskusiboak sortuz; eskumuturrekoak, besokoak, lepokoak, belarritakoak... denetarik lantzen du Nekane Aira bitxien diseinatzaileak.



Erakuslehoan zuk sortutako bitxien sorta ederra ikusi daiteke, baina enkargu bidez ere lan egiten duzu.

Horrela da. Norberarentzako zein oparitarako enkarguak egiten dizkidate. Senitateko



**"Enkargu bidezko lanekin, erosleak buruan duen horixe errealitate bihurtzeko aukera du"**

baten urtebetzea dela, oporretan egondako norbaitek harribitxiak ekarri dizkienez horiei probetxua ateragura diela... denetarikak etortzen dira.

**Zer irizpide hartzen duzu bitxiak lantzerako orduan?**

Oso inportantea da harribitxia eramango duenaren informazioa jasotzea. Opari bat egitea helburu dutenei beti esaten diet opariak arrakasta izango badu, erregalua jasoko duenaren gustuak direla kon-

tuan hartu behar direnak. Ahalik eta soslai zehatzena osatzen saiatzen naiz. Zer izaera duen, zelako fisionomia... denetarik. Esan daiteke, zelanbait, kazetari lana egiten dudala.

**Sortze prozesua zelakoa da?**

Enkargu bidez nabilenean, normalean neuri uzten didate sormen prozesua. Badago idea zehatz bategaz etortzen denik ere,

baina normalean neuri arduratzen naiz. Eta niretzako une horiek dira politenak, sormenari eta diseinuari dagozkionak. Enkargu bakoitza erron-

ka bat da, eta nire dedikazio osoa eskaintzen diet.

**Azken batean, harribitxi bakoitza eta lan bakoitza mundu bat izan daiteke.**

Hori da. Hemen lantzen diren harribitxi guztiak artisaulari dira; bakarrak. Une eta baldintza konkretu batzuetan sortutako lan pertsonalizatuak. Ez daude bi berdinak. Zelanbait esateko, erosleak buruan daukan ideia errealitate bihurtzeko aukera dauka.

**Horrek ez du esan gura prezioek garestiak izan behar dutenik.**

Artisaulari dira, produktu naturalak erabiliz egindakoak, baina hori horrela izanda ere,

oso prezio egokian lortu daitezke harribitxiak. Jendeak uste du eskulan handiak prezioan asko eragiten duela, baina ez du zertan beti horrela izan.

**Ezkontzarako, jaunartzerako... eskaririk izaten duzu?**

Bai. Jendeak gero eta joera handiagoa du, eta hori ere lan bakarrak, beste inork ez dituenak sortu daitezke. Esaterako, behin 'The lord of the rings' filmeko erantzuna egin nuen, halaxe eskatuta. Beste behin, hudo animaliak gustuko zituztela-eta erantzunean horiexek agertzea gura zuten. Jendea ilusio handiz etortzen da, ideia bat buruan duela, eta hori errealitate eginda ikusten dutenean hartzen duten poza da ni betetzen nauena.

**Modari erreparatzen diozu?**

Bai, baina nire estilo propioetik abiatuta. Zilarra harribitxiekin lantzen dut, eta hala eskatuz gero urrea ere bai. Harribitxi guztiak naturalak dira, benetakoak. Horrek nortasuna ematen dio produktuari.



DISEINUA

Tel.: 94 655 04 46 • Artekalea, 16 • Durango (Bizkaia)  
karan2@euskalnet.net



# Kolore biziak eta koadroak

Udaberria badator eta heldu da armairuan haize berria sartzeko ordua. Osagai arinagoak eta kolorez biziagoak hartuko ditugu kontutan. Mutilentzako eskaintzan, kolore urdina nagusituko da aurten, Zurea arropa eta zapata dendako Mikel Bastegietak azaldu digunez. Beragana jo dugu denboraldi berrian etorriko diren nobedadeen gaineko informazio bila.

Kosta egiten zaie arriskatzea gizoni jantziak zein zapatak aukeratzekoan. Gauzak badoaz aldatzen, astiro-astiro, baina oraindino ere segurura jotzen ei dute gehienez.

indarra, nahiz eta eredu klasikoek ere jarraituko duten.

## Zapatak

Kolore bizikoak, marradunak eta koadrodunak. Hiru estilo horien barruan sailkatu daitezke, nagusiki, zapatak. Urdinak eta berdeak dira arrakasta izango dutenak; berdeak ipini ditu adibide Bastegietak, eta kasu honek erakusten eiz du ausardia agertzen doala gizonen artean.

## Alkandorak

Zapatetan koadroak ere indarra hartuko badu, zer esanik ez alkandoretan. Lehenagotik datoren moda da koadrozko alkandorena, eta hurrengo hileetan ere jarraitu egingo duela aurreikusten da.



## Jakak

Nobedadeetaz gainera, "betiko koloreak" mantentzen eiz dira, eta jertseen artean, gorria edo urdina lako kolore argiak aurkitu ditzakegu. Eus-

kal Herrian egonda, euria ezin da ahaztu, eta jaka bakeroak ondo saltzen eiz dira beti.



**Hurrengo hilabeteetan ere jarraituko du alkandora koadrodunen modak**

**Kolore bizikoak, marradunak eta koadrodunak izango dira, nagusiki, zapatak**

tan. Dena dela, aurten aukera berri bat izango dute estilo berriak ezagutzeko. Izan ere, udaberrirako datorren eskaintzan kolore biziek hartuko dute

## Poltsa praktikoak

Poltsak geroago eta gehiago ikusiko ditugu kaleetan hemendik aurrera. Poltsa txikien eta motxilen bitarteko ereduak indarra har-

tuko du; batez ere, praktikotasunagatik. 80ko hamarkadako estiloetan inspiratuta etorriko dira, oro-

korrean, poltsa horiek. Egokiak izango dira ordenagailuak edo Ipad gailuen antzekoak barruan eroateko.

**Egokiak izango dira ordenagailuak edo Ipad gailuen antzekoak barruan eroateko**



Montebideo etorb. 3  
Durango (Bizkaia)

Zurea

ARROPA ETA ZAPATA DENDA



SACHER

# Dotorezia beti dago modan

Dotorezia berdin luzitu daiteke gaztetan ere. Soineko arinak, alkandora marradunak zein orbandunak... joera guztiak dau-de indarrean aurten.



F.G.



SACHER

Ohikoa da udaberriko moda kolorez eta pozez beteta hel-tzea. Erosotasuna albo batera utzi barik, eleganzia eta estiloari emango zaio garrantzia aurten ere. Horrela aurkeztu da 2011ko udaberri-udako moda.

Estilo zehatz batzuk nagusitzen doaz jada gazteen artean. Emakumeetan zein gizonetan errepikatuko direnak dira joera horietako batzuk. Horietako bat *Denim* ehunaren erabilera izango da. Ehun hori mota guztietako jantzietan ikusiko dugu, bai praktetan bai jaketan ere.

2011 urteko kolore nagusia zuria den arren, kolore bizidunek izango dute arra-

**Erosotasuna eta dotorezia eskutik joango dira 2011ko udaberriko denboraldian**

kastarik handiena; hala ere, kolore gordinak errotan jarraituko dugu. Arro-

tuko dute *Blazerrek*. Bestalde, soinekoen gaitetik eramango dira gerrikoak. Praktei dagokienez, aipaturiko *denimez* gainera, acid *jeansak* nagusituko dira.

2011ko modan eragin handia izan du 70eko hamarkadak. Neguan legez, Udaberrian eta udan joera hori mantendu egingo da. Hamarkada horren lekuko izango dira gerri garaiko XXL prakak. Jantzietan ere nabarituko dugu eragin hori.

Bestalde, ez da arraroa izango jantzietan ekialdeko inspirazioa aurkitzea. Indar handia du eragin horrek.

Gonei dagokienez, *bon-bon* deritzen minigonen erabilera zabalduko dela aurreikusi daiteke.

**Blazerrek armairu denetan egon beharreko jantziak izaten jarraituko dute udaberrian.**

Laburbilduz, horiek izango dira neska gazteenen moda joerak. Azken urteetan agerian geratzen dabil dotorezia eta erosotasuna uztartzeko



F.G.



F.G.



F.G.

geruza ugari jantze-ko joera mantendu egingo da oraindik.

Estanpatuak biderkatu egingo dira denboraldi berrian; gogor dator, bereziki *Print Foral* delakoa, hau da, lore estanpatuduna. Adituen ustez, joera honek neguan ezarri den beste joera batean du jatorria; gona luzen eta puntuzko XXL jertseetan, hain zuzen ere.

**Emakumeek zein gizonen gehien erabiliko duten ehunetako bat da denima**

Jertseetan orain arteko joera mantenduko da. Jertse handiak ikusi-

ko ditugu kaleetan. Emakumeen armairuetan nahitaezko lekua izaten jarrai-



F.G.



SACHER

**F.G.**  
**GAZTEEN MODA**  
 Artekale, 31 Durango

TOMMY HILFINGER | NAENAF | PAPERBIRD | Pepe Jeans LONDON | GANT | AERONAUTICA MILITARE



70eko hamarkadak neguan izan duen eragina mantenduko da udaberriko modan ere



F.G.

egiten dabiltzan saiakera. Gizonezkoen modan, berriz, *Urban* eta *Sport* joerak izango dira nagusi. Koloreei dago-

asmo-  
agaz  
moda  
arlor-  
a n

kamisetak dira. hauekin batera, koadrodun alondara ugari ikusiko dugu kalean.



F.G.

Urteko denboraldirik epelenari aurre egiteko eskaintza oparoa dago emakumezko zein gizonezko gazteentzako. Azken urteetako joerak erakutsi duen legez, erosotasunak ez du dotorezia ukatzen; modan, bidaide dira.

**Estanpatuak biderkatu egingo dira denboraldi berrian**

**Urban eta Sport joerak nagusituko dira gizonezkoen modan**

kienez, zuria nagusituko da, batez ere, kamiseten kasuan. Asko ikusiko da itsas urdina ere.

**Bermudak nagusi**

Gizonezkoetan, bermudak eramango dira. Udako epeltasuna edo beroa ez dira dotore jantzeko oztopo izango. Azken denboraldietan erosotasuna ere kontutan hartu izan da. Horregaz batera, indartzen ari den beste joera bat tirantedun



SACHER



# Oinak ere koloretsu

Udaberria koloretsu etorri ohi da, eta oinak jantzeko modari ere ez zaio kolorerik falta. Gizon zein emakumeentzat eskaintza zabala dugu aukeran.

Udako oinetako eta sandaliek hartu dituzte dagoeneko zapatadendetako erakusleihoak. Uda sasoiari keinua eginez datoz, eta badago galtzerdiekin konbinatuta jantzen hasia denik.



Emakumeentzat oxford estiloko zapatak, plataformadun sandaliak, marrazkidun edo takoi beltzdunak datozkigu; planoak ere bai. Eskalapoiek,



koloredun zapatek, nautikoek, bota itxurako sandaliek eta peeptoe gorriek osatzen dute aurkeztutako aukera zabala.

Oinetako eroso eta gutukoa lortzea izaten dugu helburu, baita zapatiletan ere: 'glamour' izpirik ez ei dute galtzen zapatilekin jantzitako look xumee k. Hori diote tententziek.

Gizonentzako proposamenek ere ez dute kolorerik falta. Mokasinak

(borlekin, flekoe-kin edo ezer barik) eta nautikoak indartsu datoz, kolore biziz jantziak horiek ere.

Joera dotore eta klasikodun firmekek ere kolore ukitua eman gura izan diote euren oinetakoei udaberri eta uda sasoiari begira osatutako kolekzioetan.

Horretarako koloretako zolak erabili dituzte. Oinak jantzeko moda, beraz, koloretsu dator.



## Blucher-ak aukeran

Eroso eta dotore joateko aukera ezin hobea bihurtu dira blucherrak udaberrirako.

Emakume zein gizonentzat, edozegaz konbinatu daitezkeen oinetakoak dira horiek, moda

diseinatzaileen arabera. Erosotasuna da armairu askotan dauden Oxford estiloko oinetakoon abantaila, eta negua gaindituta urtaro berri-rako beige kolore gama zabala dugu aukeran.



SACHER



Andra Mari, 24 • DURANGO

garcia ariño kirolak



Tel./Faxa: 94 681 77 55  
San Ignacio Auzunea, 4-A  
48200 DURANGO (Bizkaia)

# Betaurreko zabal eta koloretsuak



Betaurrekoek ikusteko ahalmena hobetzeaz gainera itxura orokorra edo estetika edertze-ko balio dute. Azkeneko urteetan betaurreko zabalak modan ipini dira; euren handitasunean aurpegikera definitzeko ahalmena dute.

Eguzkitako betaurrekoetan armazoi handi eta zabaletarako joera nabarmendu da azken hiru-lau urteetan. Inork ez du dudan ipintzen

betaurrekoek balio funtzionalaz gainera estetikoak ere badute la gaur egun, eta, bide horretatik, gero eta askatasun handiagoa dago diseinuari dagokionez. Hala ere, irizpide bat oso kontuan hartu beharra dago eguzkitako betaurrekoak erosi orduan:

aurpegiaren fisionomia. Erosleak betaurreko batzuk begiz jota baditu ere, gertatu daiteke haiek jantzi eta egoki ez gertzea. Aukerarik onena egite-

ko garrantzitsua da betaurreko dendan beharrezkoak diren adituaren aholkuak, gutxienez, aintzat hartzea.

norbere fisionomiari egokien zaizkion betaurrekoak aukeratzearren garrantzia. Okotz estua eta kopeta zabalak dutenentzako abiadore betaurrekoak dira egokienak; armazoi

armazoi horizontalegia dutenak, aldiz, hobe ez erosi kopeta dena baino zabalagoa egiten dutelako.

Aurpegi biribila dutenei ederto geratu ohi zaizkie betaurreko errektangularrak, aurpegia luzatu egiten dutelako. Ahal dela armazoi lodien eta koloretsuen alde egitea gomendatzen da, batez ere, angelu handiko betaurrekoak direnean. Amaitzeko, aurpegi obalatu dutenei bejondeiela! Gaur egungo edertasun kanoenen arabera soslaia perfektua dute, eta edozein betaurrekok edertuko ditu.

**Okotz eta kopeta estua dutenentzako betaurreko luzeak erostea da egokiena**



**Aurpegi obalatu dutenei ondo geratzen zaizkie betaurreko gehienak**



Aurten-go udaberrira begira plastikozko koloredun armazoiak ukitu retroa emango diete borobilak edo koadratuak diren



betaurrekoak. Arlo honetan adibide ugari aurkitu ditzakegu; abiadore estilokoak, alboak apur bat hondoratuta ditzutenak... Kolore biziek ere garrantzia hartuko dute, udaberriko argiari ondoen eurak egokitzen zaizkiolako. Edozelan ere, azpimarratu dugu



to. Aurpegi laukiarri armazoi fineko, kolore argiko eta forma biribileko betaurrekoak egokitzen zaizkio ondoen. Aurpegia errektangularra bada (aurrekoak baino kopeta eta masailezur zabala-goadutenak) ahalik eta betaurreko luzeenak erostea gomendatzen da, bertikal-tasun efektua hobetzeko;

**Betaurreko batzuk begiz jota izan arren, kontuz ibili; baliteke zure aurpegiaren formagaz ez ezkontzea**

finekoak badira hobe-



**urtaro berria, begirada berria**

**EROSKI optika**

PROGRAMAZIOA > KORRIKA

# Korrika Kulturalaren barnean, 'Gloriaren kantua' estreinakoz

Martxoaren 24an 20:00etan estreinatuko dute antzezlan San Agustin kulturgunean



Bikote hartu-emanen hausturari eta bakardadeari buruzkoa da Khea Ziater-en antzezlan.

**B**ilbon sortutako Khea Ziater taldearen lehenengo lanaren estreinaldia da, besteak beste, Korrikaren inguruan AEK-k antolatutako duen Korrika Kulturala programazioak Durangaldera ekarriko duena: *Gloriaren*

Antzezlanak, berbaldiak, ipuinak... dakartza Korrika Kulturalak Durangaldera

*kantua* antzezlan, Durangoko San Agustin kulturgunean estreinatuko dute martxoaren 24an, 20:00etan hasita, eta obraren gaztelarazko bertsiola oholzaratuko dute, martxoaren 25ean.

Khea taldea, besteak beste, pinturan, antzerkigintzan, arkitekturan eta poesian diharduten hainbat lagunek sortu zuten 1998an Bilbon. 2010ean jaiotakoa da, aldiz, *Gloriaren kantua* obra osatu duen Khea Ziater. Antzerkiaren bitartez, sentitzen dutena eta direna kontatzeko moduak ikertzen dituzte talde horretan, eta horrela sortu dute bikote hartu-emanen hausturari eta bakardadeari buruzko *Gloriaren kantua* obra. Musika eta dantza uztartuz dihardute gaiari buruz.

Musika eta dantza uztartzen ditu egunean estreinatuko duten obrak

Gaur 20:30ean hasiko da, baina, Korrika Kulturalaren egitarauaren barruan dagoen lehenengo hitzordua: *Euskalaketa* lehiaketaren Bizkaiko finala jokatu dute Plateruenean. Aldameneko taulan jaso dugunez, martxoan eta apirilean —apirilaren 17an Korrika amaitu aurretik— askotariko proposamenak dakartza Durangaldera ere AEK-k antolatutako Korrika Kulturalaren egitaraua antz eta oparoak. ■ I.E.

EGITARAUA

**Martxoak 18**

'Euskalaketa' bakarrizketa lehiaketa, 20:30ean Plateruenean

**Martxoak 24 eta 25**

'Gloriaren kantua' antzezlanaren estreinaldia, 20:00etan San Agustin kulturgunean

**Martxoak 29**

'Izan, egin, eragin, EHE' dokumentala, 20:00etan Plateruenean

**Apirilak 6**

Kandelen argipean taldearen 'Ipuin BEROti-koak' saioa, 10:30ean Durangoko udal liburutegian.

**Apirilak 7**

'Kriskitin hurbiletik' berbaldia, Egoitz Esturoren eskutik, 10:30ean Durangoko udal liburutegian.

**Apirilak 17**

'Ilargiaren bi aldeak' umeentzako antzerki lanaren estreinaldia, 18:00etan Durangoko San Agustin kulturgunean

MUSIKA > KONTZERTUA



Hamahiru kanta berri biltzen dituen 'En Zugzwang' bigarren diskoagaz datoz.

## Bigarren diskoa aurkeztera dator Bizardunak taldea Plateruenera

Martxoaren 25ean, Khamul taldearen ondoren eskainiko dute Bizardunak taldekoek zuzeneko

Bizardunak izenaren atzean bederatzizko musikari batu zirenean, hasieran disko bakarra kaleratzeko asmoa ei zeukaten, eta 2008an kaleratu zuten taldearen izen beragaz. "Folk radikal euskalduna" egiten zutela adierazi zuten lehenengo diskoa aurkezteko eskaintzen zituzten elkarrizketetan.

Iazko moduan, aurten ere martxoan datoz Bizardunak Durangoko Plateruenera: martxoaren 25ean, Khamul taldearen ondoren eskainiko dute kontzertua. Dubliners talde irlandarreko

eta Kubako Sierra Maestrako bizardunak maite dituztela aldarrikatzen duten musikari nafarrak datoren barikuan berriro izango ditugu Durangaldea entzungai.

Hain zuzen ere, Durangon, Euskal Liburu eta Disko Azokan,

Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan aurkeztu zuten 'En Zugzwang'

aurkeztu zuten abenduan *En Zugzwang* izeneko bigarren diskoa. Xake jokoko jokaldi bati erreferentzia egiten dio disko berriaren izenburuak: edozein pieza mugituta ere, jokalaria egoera txarrera doala adierazten ei du alemanez berba horrek.

Hamahiru kanta dira Bizardunak izenburu berezi hori darman diskoan bildu dituztenak, eta martxoaren 25ean Plateruenean joko dituztenak. Hiru sarrera bikoitzen zozketan zelan parte hartu jakiteko: [www.anboto.org](http://www.anboto.org). ■ I.E.

POESIA > EMANALDIA

## Poesiaren Nazioarteko Egunagaz bat eginda, errezitaldia Abadiñon

Traña-Matienako Errota kultur etxean, martxoaren 21 ean, 19:00etan izango da hitzordua: lau poetak jardungo dute

Bego Garcia, Rafa Harce, Honorio Cadarso eta errezitaldiaren antolatzaile ere baden Vicente Moreno abadiñarrak hartuko dute parte martxoaren 21 ean, 19:00etan, Traña-Matienako Errota kultur etxean burutuko duten poesia errezitaldian.

Poesiaren Nazioarteko Egunatzat izendatua du Unescok martxoaren 21a, eta ospakizun horregaz bat eginda, poesia errezitaldiak antolatu izan ditu bere herrian Vicente Moreno abadiñarrak. Aurten ere, azken urteetan legez, Morenok berak ere hartuko du parte olerkien irakurraldian.

Astlehenean, Morenogat oholtza konpartitzen, Cadarso kazetari abadiñarra eta Banarte antzerki taldeko kide diren Rafa Harce eta Bego Garcia jardungo dute. Hain zuzen ere, Banarte antzerki taldearen eta udalaren laguntza eskertu gura izan ditu errezitaldiaren bultzatzaileak.

Bego Garcia, Rafa Harce, Honorio Cadarso eta Vicente Moreno tartean

Martxoaren 21eko Errotako hitzordua gidatzen eta saioan aurkezpen lanak burutzen, berriz, Banarte antzerki taldeko Javier Fernandezek jardungo du.

Aurten, nobedade legez, entzuleek ere hartu ahaliko dute hitza

Javier Fernandezek egingo ditu Errota kultur etxean aurkezle lanak

Ekimenaren antolatzaile den Vicente Morenok aurreratu digunez, aurten, nobedade legez, entzuleek ere saioan parte hartzeko aukera izango dute.

Dagoeneko badira hainbat urte Vicente Moreno abadiñarrak poesia errezitaldia antolatzen duela, Poesiaren Nazioarteko Egunaren harira. Durangaldeko poetak, poesiazaleak eta, Morenok nabarmentzen duenez, poesia hain gertutik bizi ez dutenak ere deituta daude Errotara. ■ I.E.

PLATERUENA

M24

OSTEGUNA 20:00etan

GONBIDATUA:

MIKEL MARKEZ



Kantulagun



M25 BIZARDUNAK + KHAMUL

OSTIRALA 22:00etan.

Sarrera: 8-10€

KALAKAN M

LARUNBATA

22:00etan.

Sarrera: 5 €

26

ZILARR ASTERA 011

Apirilaren 12tik 16ra



HAMARKADA DURANGON



# KIROLAK >

## Durangoko lehenengo slaloma antolatu du Durangalde Racingek

Durangaldeko Racing Elkarteak 2011n antolatuko dituen bi ekimenetako lehenengoa da Durangoko I. Slaloma; bigarrena ekainean jokatuko den Urkiolako XV. Igoera izango da



Urteak daramatzate Durangalde Racing Elkarteak Durangaldean hainbat auto proba antolatzen. Iban Gorriti

**D**urangalde Racing Elkarteak ibilbide oparoa duela esan daiteke; duela bost urte jaio zenetik, hainbat izan dira antolatu dituzten ekimenak. Eskualdeko hainbat piloturen automobil-taldea izateaz gainera, hainbat egitasmo antolatu dituzte urteotan. Urkiolako Igoera lako proba bat berreskuratu ondoren – 1987tik egiten ez zena –, erronka berriei ekin diete. Zapatuan, estreinakoz, Durangoko I. Slaloma jokatuko da. Oier Gonzalez DRE-ko kideak eta lasterketako zuzendariak azaldu duenez, bes-telako proba bat egiteko gogoak bultzatu ditu horretara. Lehenengo edizio honegaz pozik daude antolatzailerak. Gonzalezen berbetan, jendeak “oso ondo” erantzundu; 40 pilotutik gora arituko dira 15:30ean hasiko den slalomean.

Slalomak zirkuitu itxietan egiten diren probak dira; Durangokoak 800 metro izango ditu, eta BI-623 errepidean izango da. Gonzalezen berbetan, hurbiltasun horrek eragina izan du: “Horrelako proba bat ikustera oinez joan ahal izateak ikusleak

hurbiltzera animatuko dituela uste dugu”. Zirkuitu horretan hiru itzuli egingo dituzte pilotuek; bi entrenatzeko, eta ofizial bat. Denbora onena lortzen duenak irabaziko du. Faboritoak nortzuk diren aurreratzera ez da ausartzen Oier Gonzalez, hala ere, bere ustetan, denbora onenak Kart Cross autodunek egingo dituzte. “Potentzia handia dute”. Guztira, lau taldetan lehiatuko dira pilotuak: Kart Cross, 1600 zm kubiko arte, 1600 zm kubikotik gora, eta atzeko traksiokoak. Esan dugunez, 40 pilotu baino gehiagok parte hartuko dute proba. Eskualdeko 15 pilo-

**Euskadiko Txapelketarako puntuagarria izango da**

tu inguruk parte hartuko dute, tartean, Durangaldeko Racing Elkarteak 7 kideak. Hainbat automobil-taldek parte hartuko du proban, adibidez, Nervion, Mungia Racing edo Zuzpertz taldeetakoek.

### Arazoak obrekin

Zirkuitu alboan obra batzuekin arazo “txiki” batzuk izan arren, zaturako konponduta egongo

direla aurreratu du Oier Gonzalezek. Slaloma jokatzen den lehenengo biderra da hau, hala ere, Euskadiko Txapelketarako puntuagarria izanda, lehia handia egongo da parte-hartzaileen artean. ■ A.M.

**Zirkuituak 800 metro izango ditu, eta BI-623 errepidean egongo da**

## 600 kilora bitarteko txapela ere Abadiñora

**Gernikan jokaturiko finala irabazi ondoren, denboraldiari agur esan diote abadiñarrek**

Azken garaipen batez agurtu du denboraldia Abadiñoko sokatira taldeak. Edu Mendizabalen mutilek tiraldi guztiak irabazi zituzten martxoaren 12an Gernikako ospaturiko finalean, Arriagorriako Sokarri taldearen aurkakoa izan ezik. Mendizabalen berbetan, irabazitako tiraldi horietako batzuetan “estu” ibili ziren; hala ere, irabaztea lortu zuten. 600 kilo arteko txapelaz gainera, 680 kilora artekoa ere

**Finalera lehenengo sailkatu ziren Edu Mendizabalen mutilak**

jantzi dute aurten abadiñarrek. 640 kilokoan hirugarren postua eskuratu zuten; ia hamar urteren ondoren, abadiñarrek galdu zuten lehenengo finala izan zen 640 kilora arteko hori.

600 kilo arteko finalera heldu aurretik, sailkapen fasean lehiatu behar izan zuten Mendizabalen mutilek; Baionan eta Elizondon burutu zituzten tiraldi horiek, eta hirugarren eta lehenengo amaitu zuten, hurrenez hurren. Horrenbestez, lehendabiziko postuan sailkatu ziren Gernikako finalera. Denboraldia amaitzeko, 560 kilora arteko txapelketa falta da. Abadiñarrek, baina, ez dute bertan parte hartzeko asmorik. ■ A.M.

**Durangon antolatzen den lehenengo slaloma izango da zapatukoa**

## Inauterietako Golf Txapelketa jokatuko da bihar Diman

Bihar, hilak 19, Inauterietako Golf Txapelketa jokatuko da Dimako golf zelaian. 2011ko rankingerako puntuagarria da txapelketa hau. Goizeko 10:00etan hasiko da txapelketa, eta parte hartu ahal izateko mozturoririk joatea nahitaezkoa izango da. Txapelketako sariez gainera, mozturro onena ere sarituko dute.

Horrelakoetan ohi denez, hiru maila ezarriko dira; mailakatzea parte-hartzaileen handicaparen arabera izango da. Parte hartzeko 20 euro ordaindu beharko dira. Azken aldian modu honetako txapelketa asko jokatzen da. ■ A.M.

## Finalerdietatik kanpo geratu da Pablo Berasaluze

Binakako Txapelketako finalerdietarako txartelik barik geratu dira azkenean Berasaluze eta Apraiz. Ligaxkako azken jardunaldian Berasaluze VIII.ak eta Apraizek 15-22 galdu zuten Gonzalez-Laskurain bikotearen kontra. Ligaxkako lehenengo jardunaldietan itxura ona eman arren, azkeneko partiduetan ez dute haizea aldeko izan... Edozelan ere, partidu onak ere jokatu ditu bikote bikaitarrak.

Bestalde, Ibai Zabala berriztarrak ere galdu egin zuen azken jardunaldian. Arretxe II.agaz batera, partidu gaitza jokatu zuten Irujo eta Merino II.aren aurka; 22-21 galdu zuten. ■ A.M.

## Bihar, Bihurri aizkolariaren saiakera berria

Ernesto Ezpeleta “Bihurri”-k saiakaera berria egingo du bihar, Berrizen. Oraingoan, 3 metroko perimetrodun enborra esku bakarragaz moztzen saiatuko da eibartarra. Modu horretako hainbat saiakera egin ditu Bihurrik. Bi Guinness errekor lortutakoa da. Lehenengo 2005eko Sanblasetan; orduan bost metroko perimetroko enborra bi ordutan moztu zuen. 2008an lortu zuen bigarrena, 2,5 metroko perimetroko pogo ebaki ondoren. Ezpeleta enbor handietan espezialista dela esan daiteke, beraz. ■ A.M.

# Durangoko V. Duatloia aurkeztu du Mugarrak

Martxoaren 26an jokatuko da euskal zirkuiturako puntuagarria den duatloia. Probaz gainera, egun osoko egitaraua prestatu dute



Martxoaren 12an egin zuten triatloi taldearen eta triatloi eskolaren aurkezpena.

**M**artxoaren 26ajai egun bat izatea gura du Mugarra triatloi taldeak. Duatloia herrira hurreratzeko asmoagaz, bosgarren biderrez Durangoko Duatloia antolatu du. Guztira 53,2 kilometroko ibilbidea izango du probak, eta euskal zirkuiturako proba puntuagarria izango da.

Proba hau jokatuko den bosgarren aldia izango da aurtengoa. Azken urteetan sendotu egin da Durangoko Duatloia, eta geroago eta pisu handiagoa du Euskal Herriko zirkuituan. Partehartzaile kopuruak ere gora egin du urteotan, eta ia 320 kirolarik parte hartu zuten. Bosgarren edizio honetarako 180 pertsonak izena eman dute jada. Gaizka Uriarte Mugarra taldeko kidearen eta probako antolatzailearen berbetan, gehiagok emango dute izena; "eguraldiaren zain egongo dira", dio. Mailari dagokionez, "oso ona" izango dela aurreikusten du Uriartek. Iazko podiuma osatu zuten gehienak aurten ere lehiatuko

direla aurreratuko du Uriartek. Durangarraren berbetan, Mugarra taldeko kide den Gurutze Fradesek zeresana emango du aurtengo proban.

Duatloia ez da izango, baina, 26rako antolatu duten ekimen bakarra. Duatloia herritarrei hurbiltzeko zein kirola eta jaiak uztartzeko asmoagaz, egun osorako egitaraua prestatu dute Mugarrakoek. Goizean, Mugarra triatloi eskolakoek gaztetxoek duatloian parte hartuko dute; ia parte hartu zuten lehenengoz. Ondoren, nagusien proba jokatuko da. Lehiak gainera, bestelako ekimenak ere izango dira. Goizean spinning erakustaldia egingo dute, eta egunean zehar kafe-dastatzea eta jaigunea egongo dira. Eguraldia lagun izatea bakarrik falta da martxoaren 26a jai egun borobila izan dadin. Festaz gainera, lana ere egingo dute batzuek, ordea; dena ondo irteteko, 40 pertsona baino gehiagok parte hartuko du duatloia antolakuntzan.

**Guztira 53,2 kilometroko ibilbidea egingo dute kirolariek**

**Spinning erakustaldia eta kafe dastaketa lako ekimenak ere izango dira**

## Taldearen aurkezpena

Martxoaren 12an triatloi taldearen eta triatloi eskolaren aurkezpena egin zuen Mugarrak. Triatloi taldean 70 lagunetik gora arituko dira. Eskola, berriz, ia 80 lagunek osatzen dute. Euskal zirkuituko probak otsailean hasi ziren. ■ A.M.

lari baino gehiagok parte hartuko dutela diote antolatzaileek.

## Iturriaga garaile

Bestalde, Eneritz Iturriaga abadiñarrak ezin hobeto hasi du denboraldia. Hilaren 12an Sopelan jokatu zuten denboraldiko lehenengo lasterketa, eta Iturriagak irabazi zuen; bigarren Fanny Riberot (Lointek) sailkatu zen. Iazko denboraldi ia osoa hutsean pasatu ondoren, sasiko itzuli da lehiaketara abadiñarra. Etzi, hilak 20, Cholet - Pays du Loire lasterketan parte hartzeko asmoa agertu du Iturriaga abadiñarrak. ■ A.M.

**Iturriagak ondo hasi du denboraldia. Sopelan bera izan zen garaile.**

# Bizkaikolore klasikoa jokatuko dute bihar

Iurretatik abiatuta, 88,2 km-ko bidea egingo dute txirrindulariek 2. edizioa duen proban

Bizkaikolore klasikoaren bigarren edizioa jokatuko da bihar. Proba hau Euskaldun Txapelketarako puntuagarria izango da. Klasikoak bi zati izango ditu. Goizean kadeteak lehiatuko dira; arratsaldea, berriz, 23 urte azpikoek eta elitekoek txanda izango da. Guztira, 80 txirrin-

**Ruben Perez**  
•Txirrindularia



## Sakrifizioaren bidea

Profesionaletan egin ditudan zazpi urteotan, eskualdeko txirrindulari profesionalen kopuruak behera egin du, nabarmen.

Nire lehenengo urteetan, eskualdeko hainbat lagun aritu gara profesionaletan. Ezin kontatuzko orduak igaro ditugu entrenatzen. Gure aurretik, hemengo txirrindulari piloak zeudela gogoratzen dut. Orain, berriz, lau geratzen gara: Egoitz Garcia, Mikel Bizkarra, Koldo Fernandez de Larrea (arabarra izan arren, Abadiñon bizi da) eta ni. Krisi orokor baten ondorio dela deritzot. Kirolari izateko apustua eginez gero, asko sakrifikatzea derrigorturik zaude; bestela ikasiko ez zenituzkeen gauza asko ere ikasten dituzu, ordea.

Profesionaletara iristea oso gaitza da; lortuz gero, ereindakoak bere fruituak ematen ditu, ostera. Gustukoek duzuna eginez bitzita irabaztea lortzen duzu.

Txirrindularitzak asko irakatsi dit, tartean diziplina. Lehenengo saria profesionaletara igotzea izan nuen. Ez da azkena izan; ia palmarena estreinatuta nuen-eta. Ez duzue imajinatzen nola hunkitu nintzen.

